LEHEN MAILAKO ITURRI HISTORIKOEN ERABILERA ETA METODO HISTORIKOAREN APLIKAZIOA IKASGELAN

JON AGUIRREBENGOA SAN ROMAN

MALaren zuzendaria

EMILIO MAJUELO GIL

MALaren zuzendarikidea

ZURIÑE SAINZ PASCUAL

Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Prestakuntzan Masterra (2013-2014)

Geografia eta Historia espezialitatea

Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea

Nafarroako Unibertsitate Publikoa (NUP)

"Indudablemente la Historia se hace con documentos escritos Pero también puede hacerse, debe hacerse, sin documentos escritos si estos no existen. Con todo lo que el ingenio del historiador puede permitirle utilizar para fabricar su miel, a falta de flores usuales. Por tanto, con palabras, con signos, con paisajes y con tejas, con formas de campo y malas hierbas (…). En una palabra; con todo lo que siendo del hombre depende del hombre, sirve al hombre, expresa al hombre, significa la presencia, la actividad, los gustos y las formas de ser del hombre"

(FEVBRE, 1953)

"No se concibe el trabajo personal de la historia, el estudio y conocimiento de las fuentes, sino como trabajo de gabinete, reservado para los especialistas que dedican a él su vida, sin que a los alumnos de las facultades e institutos les quepa más que recoger los resultados dogmáticos de tales estudios y asimilárselos, como una droga misteriosamente preparada, sin crítica alguna sobre su procedencia"

(ALTAMIRA, 1895)

AURKIBIDEA

1. SARRERA……4

2. PROPOSAMEN DIDAKTIKOA BURUTUKO DUGUN TALDEA……..5

3. EGOERAREN AUZIA…….6

4. PROPOSAMEN DIDAKTIKOA PLANTEATZEKO KONTUAN HARTU BEHARREKO HAINBAT ASPEKTU……..12

5. PROPOSAMEN DIDAKTIKOAN ERABILI DITUGUN ITURRIAK……13

6. PROPOSAMEN DIDAKTIKOA……...14

6.1-Historiaren diziplinaren ezaugarrien azalpena……14
6.2-Proposamen didaktikoan lehen mailako iturrien erabilera……..15
6.3-Proposamen didaktikoan erabili ditugun bigarren mailako iturriak……20

7. PROPOSAMEN DIDAKTIKOAREKIN LANTZEN DIREN GAITASUN KOGNITIBOAK…….24

8. PROPOSAMEN DIDAKTIKOAREN HELBURUAK……..26

9. DATUEN ANALISIA……26

9.1. A ikaslea……..26
9.2. B ikaslea……..28
9.3. C ikaslea……..29
9.4. D ikaslea……..30
9.5. E ikaslea……..30
9.6. F ikaslea……..31

10. ONDORIOAK……..32

GEHIGARRIAK……34

BIBLIOGRAFIA……57

.

1.SARRERA

Ikerketa lan honek lehen mailako iturri historikoen erabilera eta ikasgelan metodo historikoaren aplikazioa du ikerketa objektu bezala.

Jakina denez, bigarren mailako iturri historikoak izan dira historia irakasterako orduan gehien erabili diren baliabideak, testuliburuen nagusitasuna erabatekoa izanik. Gainera lehen mailako iturriak erabiltzen direnean gehienetan bigarren mailakoen menpean agertzen dira, eurek beren kabuz historia erakusteko gai izango ez balira bezala.

Testuliburuaren "menderatze" hau hezkuntzaren alor guztietan ikus daiteke; Lehen hezkuntzatik hasita unibertsitateraino. Hala ere fenomeno hau soilik Giza Zientzietan ematen dela uste dugu. Natur Zientziaren didaktikan, adibidez, hau irakasteko metodo zientifikoa aplikatzen bai delako.

Honekin batera ez dugu inolaz ere esan nahi Historia irakasterako orduan lehen mailako iturririk erabiltzen ez direla. Guk adierazten duguna zera da; Historiaren didaktikan lehen mailako iturriak agertzen diren gehienetan bigarren mailakoen menpean egoten direla. Horretarako ez da Batxilergo edo Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako testuliburu bat besterik ikusi behar. Ikusi daitekeen lehenengo gauzetariko bat lehen mailako iturrien ugaritasuna da, argazkiak eta dokumentuak besteak beste.

Lehenengoei dagokienez ilustrazioak dira, euskarri idatziaren laguntzaile bezala agertuz, aldez aurretik azaldu dena irudikatzeko erabiliak alegia. Bigarrenak, aldiz, badirudite funtzio garrantzitsuago bat betetzen dutela. Dokumentu historikoen iruzkin asko proposatzen bait dira testuliburu gehienetan zehar. Hala ere nahiz eta testu iruzkin hauek balio pedagogiko handia duten, guk testuliburuaren menpe daudela defendatzen jarraitzen dugu. Testu iruzkin hauek, gehienetan, aldez aurretik irakasleak azaldu duen gai bati buruz hitz egiten dute, ikasleak dokumentura hurbiltzean honek azaltzen duen arazoa (edo galdera) ikasleak aurretik erantzunda dauka. Ondorioz testu hau ezagutza historikoa eraikitzerako orduan balio eskasa duela ohartu gaitezke.

Hala ere ikerketa honetan guk ez dugu bigarren mailako iturriak lehen mailakoen menpean jarriko. Bi iturri moten erabilgarritasunaren aldekoak bait gara. Honekin erlazionatuz esango dugu, gure aburuz, arazoa ez dagoela iturri bat edo beste erabiltzean (goian ikusi bait dugu lehen mailako iturri asko erabiltzen direla) baizik eta iturri bakoitzari gelaren barruan ematen zaion erabileran hain zuzen ere.

Ikerketa prozesu honetan, azalduko den bezala, burutu dugun geure diseinu didaktikoan bi iturri motak erabiliko ditugu bakoitzari balio bat emanez. Lehen mailako iturriak historia eraikitzeko helburuarekin erabiliko ditugu eta bigarren mailakoak hauekin eraiki den jakintza maila igotzeko edo espezifikatzeko.

Klasean lehen mailako iturriekin ezagutza historikoa sortu nahi badugu, nahitaezkoa da Historia nola eraikitzen den argi edukitzea. Edo beste era batera esanda: metodo Historikoaren erabilera egokia sustatzea. Geure ikerketa honetan ikasleek eurak izango dira metodo historikoa aplikatzen dutenak, beti ere irakaslearen gidaritzarekin.

Baina uste dugu jakintza historikoren sormen prozesuan soilik parte hartzea ez dela, bere kabuz, erabilgarria. Hau da, metodoa aplikatzeaz aparte ikasleei Historiaren diziplinaren kontzeptuak azaldu behar zaizkiela. Kontzeptu hauek hurrengo orrietan jorratuko ditugu.

Ikerketa honen arazoa orain dator. Goian aipatu dugun bezala lehen mailako iturriak historia erakusteko bigarren mailakoak bezain erabilgarriak izan daitezkeela (beti ere metodo historiko egokia erabiliz) pentsatzen dugu. Kezka nagusia da ea Historiaren diziplinarekiko oso ezagutza maila baxua duten ikasleak lehen mailako iturrietatik jakintza historikoa sortzeko gai diren edo ez . Hau da gure ikerketa honek aztertu nahi duena hain zuzen ere.

Guk galdera horren aurrean burutzen dugun erantzuna baiezkoa dela uste dugu. Hau da, gure hipotesia da ikasleek metodo historikoa azaltzen bazaie arazo historiko konkretu bati erantzun egokia bilatzeko gai izango direla alegia.

Horretarako diseinu edo proposapen didaktiko bat sortu dugu geure hipotesia egiaztatu edo errefusatzeko. Diseinu honek ikerketa txiki batean oinarrituko da, aldez aurretik iturri historikoen eta metodo historikoaren sarrera labur baten ondoren. Aipatutako praktikan ikasleei gai historiko konkretu bati buruzko (II Mundu Gerra, geroago aztertuko dugun bezala) galdera bat proposatuko zaie. Ikasleek gai izan beharko dira behin behineko hipotesi bat aukeratzen. Hasierako momentu batean lehen mailako iturriak soilik erabiliko dituzte. Praktikaren lehen atal hau amaitu ondoren ikaslea erantzun bat aukeratuta izan beharko du lehen mailako iturrietatik ateratako informazioa kontuan hartuz. Praktikaren bigarren zatian landutako gaiari buruzko klase magistrala emango da ikasleen hipotesiak bigarren mailako iturriekin kontrastatzeko, (testuliburuak, historia liburu espezializatuak…). bi motatako iturrien erabilpenaren aldekoak bait gara.

Ondorioz jarduera honekin hezkuntza arloaren berrikuntzekin erlazioa duten hainbat helburu lortzen dira. Alde batetik ikaslearen sormena garatzen da, bera bai da arazoari erantzuna ematen diona irakaslearen papera oso mugatua izanik. Bestetik lehen mailako iturrien erabileraren arazoa konpontzen da (ez soilik bigarren mailako iturrien laguntzaile gisa) hauek historia sortzeko baliabide funtsezkoak izanik.

2. PROPOSAMEN DIDAKTIKOA BURUTUKO DUGUN TALDEA

Gure praktiketako subjektuak Altasuko Aralarko Mikel Donea Bigarren Hezkuntzako Institutuko ikasleak izango dira. Hain zuzen ere, DBH 4. mailako A eta B taldeak. DBH 4. mailako A taldean hogeita zortzi ikasle dira eta maila berbereko B taldean hogeita zazpi. Beraz osotara berrogeita hamabost ikaslerekin lan egingo dugu.

Bestetik taldearen aurrezagutzak ez genekizkien, horretarako gehigarrietan ikusi daitekeen galdetegia (1. GEHIGARRIA) eman genien. Galdetegi honetatik ateratako datuetatik honako ondorioak aipatuko ditugu, era labur batean. Horietariko bat da (lehenengo galderan ikus daitekeelarik) Historia ikasterako orduan gehien erabili dituzten baliabide gehienak euskarri idatziari dagozkiola, hau da; testuliburua eta diskurtso politikoak. Bestetik ahozko narrazioa ere erabili duten baliabide bat da. Honen arrazoia da, DBH 4. mailan Espainiako Gerra Zibila ematerako orduan ikasleek beraien aiton-amonen narrazioak biltzen dituztela lan bat egiteko. Bestetik argi ikusi genuen

(salbuespenak salbuespen) ikasle gehienek iturri historiko bat zer den badakitela (bigarren galdera). Hala ere askok arazoak dituzte lehen eta bigarren mailako iturrien arteko desberdintasunak zehazterako orduan (hirugarren galdera). Gainera desberdintasuna era egokian ulertzen duten ikasleek hori azaltzeko zailtasun askorekin aurkitzen dira. Beraz, lehen eta bigarren mailako iturrien desberdintasuna jorratzea izango da gure diseinuaren atal bat.

Horrela ba normalena zen iturriak desberdintzerako orduan (laugarren galdera) arazoak izatea. Baina gehienek zuzen burutu dute galdera hau. Beraz, desberdintasuna badakitela ematen du, nahiz eta iluntasun asko eduki. Harritu zaigun beste gauza bat hurrengo galderan (bosgarrenean hain zuzen ere) ikusi dugu, ikasle gehienentzat Historia ikasteko baliagarriagoak dira iraganeko aztarnak testuliburua baino.

Azkenik seigarren galderan honako esaldiekin ados daude ikasleak: “iraganeko aztarnak historia ikasteko testuliburua baino fidagarriagoak dira” eta “iturri guztien egiazkotasuna aztertu behar da beti”. Ados ez dauden esaldiak honakoak direlarik: “argazki batekin soilik oso datu historiko gutxi atera daitezke” eta “iturri idatziak dira informazio gehien ematen duten iturriak”

Datu hauekin ondorio kontraesankor bat ateratzen dugu: ikasleek lehen mailako iturriak asko baloratzen dituzte historia ikasteko nahiz eta errealitatean hauek oso aldi gutxitan erabili dituzten.

Bestetik honekin erlazionatuz pentsatu genuen Bigarren Mundu Gerrako ezagutzak jakiteko beste galdetegi bat egitea. Hala ere gai honi buruzko geure taldearen aurrezagutzak jakiteko institutuko tutorearengana jo genuen. Horrela jakin genuen gaia hau ulertzeko, gure ustez, beharrezko kontzeptuak emanda zituztela; I. Mundu Gerra, gerra arteko garaiko faxismoaren eta nazismoaren gorakada, errusiar iraultza, Bigarren Mundu Gerrako aurrekariak eta Poloniako inbasioa alegia.

Beraz jakintza hauek kontuan harturik geure gaia erabat mugatu genuen. Diseinu didaktikoan landuko dugun gaia Mendebaldeko frenteko ekintzak izango dira, Frantziako erorketari arreta berezia eskainiz. Honela ba lanean murgilduko gara, lehenik eta behin marko teorikoa definituz.

3. EGOERAREN AUZIA

Ikerketa lan honetan jorratu nahi den galdera ikuspuntu askotatik landua izan da. Egoeraren auzi honetan gai honi buruzko hainbat adituren ikuspuntuak bilduko ditugu[1]. Honekin hasi baino lehen zehaztasun pare bat esatea komeniko litzateke. Lehenik eta behin argitu beharra dugu bilatu dugun informazioa mugatu dugula, ezinezkoa delako arazoa jorratzen duten lan guztien bilketa bat egitea. Bestetik, esan, adituek arazoari buruz esaten dutena hainbat azpiataletan zatitzea erabaki dugula; azpi atalak honakoak direlarik: historiaren zientifikotasuna, metodo historikoa, ikerkuntzaren bidezko metodoa ikasgelan aplikatzea, iturri historikoen definizioa, eta azkenik, irudien analisia eta balioa didaktikan. Ikusten denez egindako antolaketa erabat subjektiboa da, gai

[1] Erabili dugun bibliografia osoa gaztelaniaz dagoenez hainbat autoreen iritziak hitzez hitz aipatzerakoan euskarara itzultzearen beharrean ikusi gara. Beraz esan behar dugu itzulpen horiek lan honen egilearenak direla eta itzulitako esaldi bakoitzean gaztelaniazko itzulpena txertatu dugula oin-ohar bezala.

batzuk erlazio estua bai dute beraien artean, hala ere egokiena dela uste izan dugu. Honela ba egoeraren auziari ekingo diogu hurrengo orrialdeetan.

Historiaren zientifikotasuna gaur egun zalantzan jartzen ez den baieztapen bat da. Moradiellos-ek (2011a, 41) historia zientzia bezala kontsideratua izateko baldintzak proposatzen dizkigu "historia egiazkoa izaten saiatu behar da, ez arbitrario edo apetatsua; materialki egiaztagarria eta ez frogagaitza; kausalista eta berezkoa eta ez zoriaren araberakoa; arrazionalista eta ez logika demostratiboaren aurkakoa; kritikoa izan behar da eta ez dogmatikoa".[2] Ondorioz Historia beste zientziek dituzten ezaugarriak txertatu behar ditu.

Galindok (1997, 100) ere historiaren zientifikotasuna defendatzen du baina zientifikotasun hau ikasgelan aplikatzearen beharra azpimarratzen du "Lehenik eta behin diziplinaren funtsezko kontzeptuak argitu beharko dira ondoren azalpenezko ereduetara igarotzeko"[3] Honela ba, historiaren gaiei buruzko azalpenak eman aurretik hau nola eraikitzen den erakustea ezinbestekoa dela uste dugu. Prats eta Santacana (2011) urrunago joaren dira eta didaktikaren eta epistemologiaren jakintza historikoa bakarra dela esaten dute, hots, ezin dela banatu eskolan ematen den historia eta ikerketaren bidezko historia. Ideia hau XIX. mendean Altamirak (1895) ere azpimarratzen du ikerketa historikoa adituen munduan isolaturik dagoela eta ez alor akademikoan.

Baieztapen honen aldekoak dauzkagu Prieto, Gomez eta Miralles (2013, 3) honakoa esaten bai dute:

> (…)funtzio hau [Historiarena] ikasleek historialariek iragana zehaztasunez ezagutzeko erabiltzen dituen metodo eta tekniken multzoa ezagutu dezaten azpimarratzen du. Gazteek aztertzen ari diren gaiei buruzko hipotesiak formulatzen, hainbat informazio iturrietatik azalpenak bilatzea eta planteatutako arazoari buruzko orokortasunak eta modeloak eraikitzeko gai izan behar dira.[4]

Hau da, hitz gutxitan esanda, ikasleak historiaren zientifikotasunaz ohar daitezen ezinbestekoa da diziplina edo zientzia honen funtzionamendua azaltzea.

Hau ikasleei azaltzeko derrigorrezkoa da metodo historikoa irakastea edo beste era batean esanda jakintza historikoa nola eraikitzen den erakustea. Horretarako Prats eta Santacana (2011b, 59) ikertu nahi duen historialari orok jarraitu beharreko metodoa laburtzen digute:

---

[2] "[La Historia] pretende ser verdadera, no arbitraria ni caprichosa; verificable materialmente y no incomprobable; causalista e inmanente y no fruto del azar o de fuerzas inefables; racionalista y no ajena a toda lógica demostrativa; crítica (en cuanto que sujeta a criterio discriminador y revisable) y no dogmática."

[3] "No obstante, mantienen que habría que insistir primero en los conceptos fundamentales de la disciplina, pasando después a los modelos explicativos"

[4] "Esta función [de la Historia] incide en que los alumnos aprendan los métodos y las técnicas que utilizan los historiadores para conocer el pasado de forma rigurosa. Esto supone que los jóvenes deben aprender a formular hipótesis sobre los hechos que deben analizar, buscar explicaciones a través de distintas fuentes de información y construir generalizaciones y modelos que den explicación al problema planteado".

> 1-Aztertu nahi den arazo edo auziaren planteamendua. Gaiaren mugaketa eta akotazioa. 2-Auziaren egoera. Arazoaren inguruan egin diren erantzun eta planteamendu ororen azterketa. 3-Hainbat autoreek proposamen bakoitzari buruzko barneko elementuei buruz egindako hipotesi ezberdinen balorazioa. 4-Arazoarekin zerikusia duten lehen mailako iturri guztien klasifikazio eta analisia. 5-Aurreko pausoaren hipotesiaren ziurtatzea, ahala izanez gero. Hipotesiaren inguruko problematikaren zehaztea. 6-Analisi demostratiboa. Pauso hau historian oso zaila da, demostrazioa hau burutzeko baliabideak iturrien analisi kritikoaren esku daudelako edo kimika edo lege juridikoen bidezko analitika anitzen bidez. 7-Atera diren ondorioen erredakzioa.[5]

Hala ere metodo historikoa bere zehaztasun guztiekin klasean erabiltzea zailtasun asko dituela pentsatzen dugu. Ugariak izan dira metodo historikoa ikasgelan aplikatzeari buruz idatzi duten adituak, gehienek hau egiteko ikerkuntzaren bidezko ikaskuntza sustatu behar dela diote. Tribok (2005) ikasleei arazo historiko bat planteatu behar zaiela azpimarratzen du, bestetik irakasleak arazoa argitzeko beharrezkoak diren iturri historikoak eskaini behar dizkie eta ikasleak hipotesia formulatu ondoren iturrien prozesamendu egoki bat egin beharko du arazoari erantzun zuzena emateko.

Galindo (1997) ere tesi hauen defendatzaile agertzen zaigu eta ikasgelan metodo historikoa aplikatzeko pausoak zehazten ditu; lehenengo ikasi nahi den gaia azpi gaietan zatitzea izango litzateke; ondoren arazoaren inguruko datuen bilketa, dokumentuen analisia eta azterketa bibliografikoa egin beharko litzateke; hau egin eta gero hipotesia egiaztatu beharko da horretarako irakasleak beharrezko baliabideak eman behar dizkio ikasleari; azkenik ikerketaren ondorioen txostenaren aurkezpena egin beharko litzateke. Calaf (1994, 66) ikerkuntzaren metodoa aplikatzearen alde agertzen zaigu, ikerketa prozesua beste autoreak baino era sinpleagoan azalduta: "1-Hipotesiaren formulatzea. 2-Dauden iturrien analisia, kritika eta aukeraketa. 3-Lan egiteko metodologia baten formulatzea eta iturriekin lan egitea. 4-Emaitzen formulaketa"[6].

Aztertu nahi den ikerketa gaiari buruz Aldana (1974, 46) mintzo zaigu: "Lehenik eta behin gaia erakargarria izan behar du ikerlaria gustura aritu dadin. (…) Ondoren gaia originala izan behar du, eta ez aurreko ikerketen laburpen bat.(…) ikerlariak eman dizkioten elementuekin arazoa aurrera eramateko gai izan da"[7]

---

[5] "1-Planteamiento del problema o cuestión que se quiere estudiar. Delimitación y acotamiento del campo. 2-Estado de la cuestión. Estudio de todas las respuestas o planteamientos que se han hecho en torno al problema. 3- Valoración de las diversas hipótesis formuladas por los autores sobre la base de los elementos internos de cada una de las propuestas. 4- Análisis y clasificación de todas las fuentes primarias relacionadas con el problema que se estudia. 5-Fundamentación, si fuere el caso, de la hipótesis resultante del paso anterior. Planteamiento de la problemática en torno a la hipótesis. 6-Análisis demostrativo. Este paso siempre es muy difícil en historia, ya que los procedimientos para efectuar "la demostración" dependen del análisis crítico de las fuentes o bien de la existencia de analíticas que pueden ser tan diversas como la química o las ciencias jurídicas. 7-Redacción de las conclusiones a que se ha llegado"

[6] "1-Formulación de una hipótesis. 2-Análisis de las fuentes disponibles, crítica y selección de las mismas. 3-Formulación de una hipótesis de trabajo, y trabajo con las fuentes. 4-Formulación de resultados"

[7] "En primer lugar el tema debe ser lo suficientemente atractivo para que el investigador trabaje a gusto. (…)En segundo lugar, que el tema sea original no que sea un simple resumen de investigaciones anteriores. (…) En tercer lugar que, poniendo en contribución todos los elementos de que dispone el investigador, pueda llevar adelante el tema"

Albert, Fuentes eta Gutierrezek (2011) ikerketa baten gaia aukeratzerako ere informazioa ematen digute; hau mugatua eta zentzuzkoa izan behar dela diote, horrela errazagoa bai da hasierako galderak eta hipotesiak zehaztea; metodologiari dagokionez hiru autore hauek ikasleak lanaren zentzua ikusi behar duela azpimarratzen dute, baita ere erabiliko duen metodologia ere; premisa hauetatik abiatuz irakasleak analisi zientifikoaren teknika nagusienak azaldu behar dituela ere defendatzen dute. Ikusten denez autore guztiak metodo historikoa bere osotasunean aplikatzearen zailtasunen aurrean hau nabardurekin aplikatzearen alde agertzen dira. Puntu hauetan denek jarrera komuna adierazten dutelarik: bai erabiliko diren iturriak nola gaia mugatuta izan behar dira eta ikasleari bere kabuz erantzuna bila dadin beharrezko baliabideak eman behar zaizkio.

Hala ere badirudi ikerkuntzaren bidezko metodoa aplikatzerakoan irakaslearen lana ikasleak prozesu honetan gidatzea besterik ez dela. Horren aurka Tribo (2005) agertzen da; irakasleak prozesu honetan lan nekeza egin behar duelako alegia; hasieran irakasleak iturriekin gogoeta pedagogiko bat egin behar du (iturri bakoitzari funtzioak eman, iturrietatik informazioa ateratzeko baliabideak zehaztu, lana zuzentzeko mekanismoak finkatu…). Hau Coronas-ek (1971) esaten duenarekin bat dator, irudi baten irakurketa egokia burutzeko irakaslearen lana eta parte hartzea ezinbestekoa dela defendatzen bait du.

Hala ere nahiz eta metodoa era egokian aplikatuz beharrezkoak dira ikerketa orotan iturri historikoen erabilera egoki bat bultzatzea. Iturririk gabe historia berreraikitzea ezinezkoa dela uste dugulako. Hau azaldu baino lehen autore desberdinek iturri historiko hitzari buruzko hainbat definizio ikusiko ditugu, baita hauek klasifikatzeko irizpideak ere, geure lanean iturriak erabiliko ditugunez haiek era egokian ezagutzea komeni zaigulako. Ohartuko garen bezala ez dago hitzari buruzko definizio zehatz bat nahiz eta puntu komun asko eduki.

Tribok (2005, 83) honela definitzen du iturri historiko bat: "Aztarna bat, giza testigantza, material edo kulturala, indibiduala edo taldekoa, gaur egun dagoen iraganeko aztarna bat iragan historikoa berreraikitzen laguntzen diguna eta gaur egungo aspektu bat ulertzea ahalbideratzen diguna".[8] Coronas (1971, 14) definizio orokorrago bat proposatzen digu: "Iturria historialariak iragana berreraikitzeko erabiltzen duen baliabidea da."[9] Feliu eta Hernandez (2011, 45) honela definitzen dute: "Iraganean zuzenean sortu ziren gauzak edo iraganari buruz egin ziren azterketak. Iraganeko edo honi buruzko aztarnak, honen aspektu batzuk ulertzea laguntzen dizkigutenak, iturri edo iraganeko ebidentziak deitzen ditugu"[10] Moradiellos (2011b, 60) aurreko definizioaren antzeko bat egiten du,: " Iturriak (metafora hidrologiko bat: uraren ibilgua ateratzen del lekua) historialariaren lehengaiak dira eta gizakiaren iraganeko aspektu bati buruz informazioa ematen duen edozein euskarri fisikoan agertzen zaizkigu."[11] Oro har

[8] "Un vestigio, un testimonio humano, cultural o material, individual o colectivo, una huella del pasado en el presente que nos permite reconstruir el pasado histórico y nos ayuda a entender un aspecto de nuestro presente".

[9] "La fuente es, por tanto, el medio de que se vale el historiador para reconstruir el pasado".

[10] "Se trata de cosas que se generaron directamente en el pasado, o bien estudios que se crearon sobre el pasado. Todos estos restos del pasado, que nos permiten conocer algunos de sus aspectos, son lo que denominamos fuentes o evidencias del pasado.

[11] "Las fuentes (una metáfora hidrológica: surtidor del que sale un caudal que fluye) son básicamente la materia prima del historiador y se manifiestan en cualquier soporte físico corpóreo que transmite algún tipo de información sobre un aspecto del pasado humano".

definizioak nahiko antzekoak dira eta guztietan honako ideia errepikatzen da: iturri historikoak iragana berreraikitzea ahalbideratzen dizkiguten edozein aztarna dira Febvre (1953) esaten zuen bezala.

Iturrien definizioak aztertu eta gero hauen klasifikazioari buruz hainbat adituk diotena ikusiko dugu atal honetan. Tribok (2005) iturriak klasifikatzerako orduan lehen eta bigarren mailakoen arteko bereizketa egiten du. Lehen mailakoak aztertzen ari den garaian sortutakoak dira eta bigarren mailakoak komunitate zientifikoak lehen mailako iturri horiek interpretatzean sortutakoak izango lirateke. Oro har adostasuna ikusten dugu hainbat autoreen artean Prats eta Santacana (2011c, 77) honakoa esaten dutelarik "[lehen mailako iturriak] informatzen diguten garaian sortuak izan zirela"[12] Beraz irizpidea nahiko argia dela ikus daiteke.

Orain jorratuko duguna irudia era didaktikoan lantzeko hainbat autoreek eginiko proposapenak dira. Argi dago ikasten ari garen garaiaren arabera iturri batzuk edo beste erabiltzea egokiagoa izango litzatekeela. Gure kasuan XX. mendeko historia aztertu nahi dugulako irudia (argazkia eta bideoa) erabiltzea erabaki dugu. Pantoja-k (2010) esaten duen bezala argazkiak, zineak eta telebistak XIX eta XX. mendeko memoria bisuala adierazten dutelako, egokiak dira garai hau aztertzeko eta hauen ugaritasunagatik lortzen oso errazak dira. Baina Aldanak (1974) ugaritasun honen alde txarrak aipatzen ditu eta berarentzat eraginkorragoa da dokumentu kopuru txiki bat lantzea teknika egokiak erabiliz.

Atal honetan audiobisual eta historiaren didaktikaren loturak Calaf-ek (1994) aipatzen ditu; argazkiak, zineak, bideoak, telebistak, prentsak eta mapak ikasleen motibazioa pizten dutela demostratu du. Bestetik Aldana-k (1974) irudien erabilerak ikaslearen lan pertsonala sustatzen dutela, honek helburu bat lortzeko erraztasunak baldin baditu, esaten du.

Martinez eta Maqueda-k (1989) irudia eta historiari buruz hitz egiten dute; irudia ikuslea historian era zuzenean kokatzeaz aparte, historialariak kontuan izan behar du orok errealitatea ikusteko modu bat adierazten duela eta pertzepzio eta balorazio pertsonal bat suposatzen duela. Prats eta Santacanak (2011a) irudiak beti interes batzuen menpe daudela esaten dute nahiz eta manipulaturik ez egon.

Baina Calaf-ek (1994) manipulazio honi etekina nola atera azaltzen du, beraren ustetan ikasleak iturri manipulatu edo faltsu baten distortsioak ikusteko gai baldin bada manipulatuak izan ez diren iturriak lantzeko erraztasun handiagoa izango du, beraz iturri "ilun" hauek oso erabilgarriak izateaz aparte, iturriaren autorearen benetako nahia jakin daiteke. Kurtz-ek (1994) honi buruz irudiek hainbat "ezkutuko" datuak dauzkatela esaten du eta irudiekin lan egiterako orduan elementu horien identifikapena oso garrantzitsua dela.

Irudia eta ideien loturari buruz Prieto, Gomez eta Miralles-ek (2013) ikasleak irudia eta ideiaren arteko erlazioa oso era azkarrean prozesatzen duela, hitza eta ideia baino era azkarrago batean, adierazten dute. Erlazio honi buruz Pantoja (2010) mintzo zaigu; liburu baten orriak pasatzerakoan ohartzen bai gara irudiak eta idatzia

[12] "[las fuentes primarias] se trata de aquellas que fueron producidas al paso mismo de los acontecimientos de los cuales nos informan"

erlazionaturik daudela, hainbat irudi lehenago irakurritako hitzak iradokitzen bai dizkigutelako.

Coronasek (1971, 58), aldiz, kontrakoa esaten du, hau da baliabide audiobisualak hitzaren menpean egon behar dutela: "[baliabide audiobisualak] irakaslearen hitzaren laguntzaile besterik ez dira izan behar (…) irudia hitzen bidez azaltzen zaila dena ulertzea laguntzen dute."[13] Pantoja-k (2010) gauza erabat desberdina esaten du bi errekurtsoak bateragarriak direla ulertzen du baina irudiak euren kabuz erabiltzean hitza baino kontzeptu eta pentsamendu anitzagoak sortzen dituela mintzo da. Ondorioz, beraren esanetan badago lengoai ikonografiko bat idatzizkoaren konplexutasun maila berbera edo gehiagorekin. Hala ere bi iturri motek balio pedagogiko handia dutela defendatzen du, Bermudezek (2008, 111) bezala:

> Arazo nagusia ez da jakintza historikoa lortzeko iturri edo forma espezifiko bat edo beste defendatzea, baizik eta ikaskuntza formalizatu baten egoera desberdinen aurrean bakoitzari ze erabilera ematea baizik. Asmoa ez da adieraztea liburuak balioa edo interesa galtzen duela irudi audiobisualaren aurrean, biek ezaugarri ezberdinekin diskurtso historiko komun bat ematen bai dute.[14]

Hala ere material audiobisualak era egoki eta eraginkor batekin erabili behar dira. Martinez eta Maqueda-k (1989) material audiobisualei etekin handiena lortzeko bete beharreko baldintzak adierazten dizkigute; errealitatea ahalik eta zehaztasun handiz interpretatzen saiatu behar dira, ahalik eta objektiboenak izan behar dute, ikaslearen interesa piztu behar dute eta bertan adierazten diren kontzeptuak argiak izan behar dira.

Hemen beste errealitate batekin topatzen gara: gaur egun ikasleak irudiez inguratuta bizi dira (aldizkariak, publizitatea, telebista…). Martinez eta Maqueda (1989) irudi kopuru izugarri hau asimilatzea ezinezkoa dela diote, hala ere pertsonak gai dira irudi horiek transmititu nahi digutena kodifikatzeko, beraz gaur egun, inoiz ez bezala, irudiaren etika bat beharrezkoa da irudia analizatu, kritikatu, erabili, disfrutatu eta bere gain dituen manipulazioetatik askatzeko beharrezko mekanismoak eman behar dizkiogu ikasleari. Feliu eta Hernandez (2011) gaitasun hauek ikaslearen eguneroko bizitza oso erabilgarria izan daitekeela diote, pertsona osatu eta kritiko bat eraikitzen laguntzen bait dute.

Irudiak era egoki batean analizatzeari buruzko prozedurak Prats eta Santacanak (2011a) definitzen dituzte; lehenik irudiaren analisi morfologikoa egin behar da (euskarria, mota, taldekoa edo bakarkakoa den…) ondoren edukiaren analisia egin beharko litzateke (gaia zehaztu, irudian agertzen diren elementu bizidun eta bizigabeen identifikazioa…) eta azkenik esanahiaren analisia egin beharko litzateke (pertsonen ekintzen azterketa, testuinguru historikoa, egilearen intentzionalitatea…).

Egoeraren auzi honekin amaitu aurretik hainbat ondorio edo balorapen aterako ditugu. Lehenik eta behin gure MAL honetan landu nahi den gaiari buruzko mugak

---

[13] "[los medios audiovisuales] solo deben ser auxiliaren de la palabra del maestro. (…) el de ayudar a comprender lo que con palabras sería difícil. "

[14] "La cuestión fundamental no estriba en defender una fuente o una forma especifica de adquirir conocimiento histórico, privilegiando a una solamente, sino en saber exactamente el uso que puede dársele a cada una dentro de una situación de aprendizaje formalizado o no. No se pretende crear la falsa idea de que el libro pierde valor o interés frente a la imagen audiovisual, ambos se complementan y ofrecen un discurso histórico con características similares"

ikusteko balio izan digu eta baita hau era egokian aplikatzeko hainbat irizpide eman ere.

4.PROPOSAMEN DIDAKTIKOA PLANTEATZEKO KONTUAN HARTU BEHARREKO HAINBAT ASPEKTU

Argi dago metodo historikoaren aplikazioa eta lehen mailako iturrien erabilera ikasgelaren barnean aplikatzeak arazo ugari suposatzen dituela. Arazo hauek agerian gelditu dira marko teorikoa planteatzerako orduan, baina zehaztasun handiagoz aztertzea komeniko litzateke geure kasura eramanez.

Irakurritako hainbat adituk esaten duten bezala metodo historikoa ikasgela batean bere ezaugarri guztiekin aplikatzea oso zaila da. Guk horrekin ados gaude, gure DBH 4. mailako taldean zailtasun askorekin topatuko bait gara. Honi praktikaren testuingurua gehitu behar diogu, nahiz eta gure praktiketako tutoreak erraztasun guztiak eman dizkigun gure diseinua emateko denbora mugatua daukagu (2 saioetan). Honekin lotuta Prats eta Santacana-k (2011b) esaten dute metodoa sustatzeko erarik egokiena ikasleari beharrezko baliabideak eman ondoren bera bere kabuz ikertzen uztea izango litzateke (adibidez etxean, liburutegian…), hau da eskolaz aparte, irakaslearen gidaritzapean beti ere.

Bi autore hauei erantzunez guk uste dugu praktika gelan egiteak irakaslearen aldetik ikasleen lana hobeto kontrolatzea suposatzen duela. Bestetik diseinu didaktiko honekin inolako esperientziarik ez daukagunez prozesu guztia geure eskuetan egotea egokia izango zela pentsatu dugu. Ondorioz, arrazoi guzti hauengatik autore gehienek aipatzen duten ikaslearen autonomia murriztu beharrean aurkitu gara.

Hala ere beste atal batzuetan ikasleei zailtasun maila gehigarri bat eskatuko diegu, bigarren mailako iturriekin lan egiterako orduan alegia. Gorago aipatu dugun bezala hauek kontzeptu konplexuak lortzeko erabiliko bait ditugu. Argi ikusi genuen guk aurrera eraman nahi genuen praktikarako ikasleek erabiltzen zuten testuliburua gure diseinu didaktikorako ez zuela balio (jorratu nahi genuen gaiari buruzko oso datu gutxi ematen zizkigulako, alegia) . Hala ere gai honi buruzko liburu espezializatuak zuzenean ikasgelan erabiltzea gehiegizkoa zela uste genuen. Honela ba bi baliabideen arteko oreka bilatzen saiatu ginen. Horretarako Bigarren Mundu Gerrako hainbat liburu irakurri ondoren haiekin sintesi bat burutu dugu, beti ere egokitzapen didaktikoa eginez.

Metodo hau era egokian planteatua izan dadin hainbat faktore kontuan hartzen jarraituko dugu. . Horietako bat ikasleei eskainitako datuen konplexutasuna eta kantitatea da. Uste dugu ematen dizkiogun datuak (argazkiak, bideoak eta geuk eginiko testua) nahiko esanguratsuak direla eta ikasleek egiten zaien galdera era egokian erantzuteko adina informazio izango dutela. Bestetik ulertzen dugu ikaslea historia lantzeko material hauekin ez dagoela oso ohituta, horregatik haiek eskatzen dutenean beharrezko laguntza emango zaie.

Ikaslearen gaitasun kognitiboak, haren formazioa eta ororen gainetik haren jarrera, hau jarrera positiborik gabe ezinezkoa delako (hemen iluntasunen artean ibili ginen ez bai genituen taldeak asko ezagutzen ezta haiek metodo berri honen aurrean hartutako jarrerak ondorioz murriztasun asko sartu genituen ezjakintasunaren aurrean) ere kontuan hartzeko beste faktore batzuk dira.

5. PROPOSAMEN DIDAKTIKOAN ERABILI DITUGUN ITURRIAK

Proposamen didaktiko honetan erabili ditugun materialak zehaztea da atal honen helburua.

Proposamen didaktiko honetan erabili ditugun lehen mailako iturriak lau argazki eta bi bideo dira, 1940ko maiatz eta ekainean Bigarren Mundu Gerran Mendebaldeko fronteko (Holanda, Belgika eta Frantzia) gertakizunak islatzen dituzten bideoak eta argazkiak hain zuzen ere. Ondoren azaltzen den bezala argazkiak proposamen didaktikoa azaltzerako orduan txertatu ditugu, beraz han ikus daitezke. Hauei buruz esan dezakeguna da oso esanguratsuak izateagatik aukeratu ditugula; adibidez horietariko batean Hitler eta buruzagi nazi garrantzitsuenak Eiffel dorrearen aurrean (Frantziako sinboloa) agertzen dira. Argazki guztiak Alemaniako Artxibo Federaletik (Bundesarchiv) atera ditugu. Argazkiak hemendik atera izana ez da ausazkoa. Iturriekin lan egiten ari garenez ezinbestekoa zaigu haiek egiazkoak izatea. Honela ba uste dugu Alemaniako Artxibo Federalak eskatzen diogun egiazkotasun hau ematen digula.

Bestetik bideoak youtube-tik atera ditugu. Hauen egiazkotasuna frogatzeko bideo hauen analisi zurrun bat burutu dugularik. Lehenengo bideoan[15] naziek Paris konkistatu ondorengo desfilearen irudiak eta Rethondeseko armistizioa azaltzen zaigu. Ohartuko garenez bideoaren irudiak bat datoz argazki askorekin. Bestetik lehenengo bideo honetan agertzen diren hainbat leku identifikatzea erraza da (Eiffel dorrea, Garaipen Arkua, Zelai Elisseoak, Rethondeseko tren bagoia…) eta geuk irakurritako II Mundu Gerrako liburuekin erlazio estua daukate . Era berean Hitler identifikatzea ere ez da oso zaila. Pertsonekin jarraituz Hermann Goering identifikatzeko ez ditugu zailtasunik izan, hala nola Erich Raeder identifikatzeko (alemaniar itsas armadaren uniforme beltza/urdin iluna daramalarik). Bestetik soldaduen maila ikus dezakegu haien uniformeei arreta eskaintzen badiegu, askori kondekorazioak ikusten bait zaizkie. Bideo honetan militar frantsesak ere identifikatu ditzakegu *kepis* izeneko txapel bereizgarriari esker.

Bigarren bideoak[16] aldiz zailtasun gehiago dauzka. Frantzia eta Alemaniaren arteko gudaren irudiak azaltzen dituelarik. Hala ere soldadu frantsesak eta alemanak identifikatu ditzakegu batez ere haien kaskoei erreparatuz gero. Ibilgailuak mugatzerako orduan alemaniarretan *Balkenkreuz* edo Barra Gurutzea ikusten delako. Bestetik bideoaren hogeita hamalaugarren segundoan naziek Belgikako muga zeharkatzen ikusten da (kartel bat ikusi dezakegulako). Hurrengo ekintzak non ematen diren argitzea zailagoa suposatzen da. Gauza esanguratsuekin jarraituz bideoan frantziar soldadu gatibuak agertzen dira alemaniarren eskuetan.

Beraz uste dugu bi bideo hauek egokiak direla klasean iturri historikoak lantzeko. Alde batetik ez dira oso luzeak- hiru minutu inguru- eta beste batetik oso agertzen diren ekintzak oso esanguratsuak dira.

---

[15] https://www.youtube.com/watch?v=KAFc1ED_oPs 3:05 min
[16] https://www.youtube.com/watch?v=Gqqn1eUKS1o 3:22 min

6. PROPOSAMEN DIDAKTIKOA (7. GEHIGARRIA)

Esan den bezala, proposapen didaktikoa DBH 4. mailako ikasleekin burutu genuen. Kurtso honetako bi taldeekin burutu genuen: DBH 4. maila A eta DBH 4. maila B. Jarduera praktikara eramateko denbora bi saioetakoa izan zen. Horretarako BHI Aralarko Mikel Donea institutuko Areto Nagusia erabili genuen, bertan bait zeuden beharrezkoak genituen materialak: historiaren printzipioak, II Mundu Gerrako bideo eta argazkiak zituen powerpoint ikusteko proiektore bat alegia.

Diseinu edo proposamen didaktikoa bi zati nagusietan banatzen da. Lehenengo zatian Historiaren diziplinaren hainbat ezaugarri azalduko dizkiegu ikasleei (iturrien informazioa, metodo historikoa…). Jakina denez lehen atal honen helburua ikasleei lehen mailako iturriekin lan egiteko eta metodo historikoa zuzen aplikatzeko beharrezko ezagutza minimoak transmititzea da. Bigarren zatian ikasleari gai bati buruzko- Bigarren Mundu Gerra- galdera edo arazo historiko bat proposatuko zaio metodo historikoaren erabilpen eta iturrien analisi egoki bat burutu ondoren argitu beharrekoa.

6.1. Historiaren diziplinaren ezaugarrien azalpena

Honela ba proposapen didaktikoa azalduko dugu. Lehenik eta behin sarrera bat egingo dugu: ikasleei jakintza historikoa nola eraikitzen den erakutsiko diegula esan behar zaie eta honetaz aparte irakatsiko dieguna klasean bertan aplikatuko dugula ere bai.

Horretarako oso komenigarria da Guibert eta Majueloren (1998) liburua. Liburu horretatik eginiko eskema baten moldaketa erabili bait dugu geure praktikarako. Hasieran iturri historiko hitzaren definitzea ezinbestekoa da (ikusi 2. GEHIGARRIA), haren kontzeptua garbi gera dadin. Definizioa hau (dakigun bezala hitz honi buruzko autore adina informazio daude) erabili genuen: *"Iraganeko informazioa ematen duen edozein aztarna material, dokumental, ahozko edo patrimoniala"*. Definizio hau oso egokia dela uste dugu eta ikasleei azaldu genien iturri historiko bat izateko iraganeko informazioa eman behar duela. Gauzarik xumeena iturri historiko garrantzitsu bat izan daitekeela azaldu behar zaie beti ere iraganeko informazioa ematen baldin badigu.

Hau egin eta gero lehen mailako eta bigarren mailako iturri historikoen arteko desberdintasunak azaldu behar dira . Hau ez da iturrien klasifikazioarekin nahastu behar, hau da, iturriak dokumentalak, materialak… diren ala ez. Iturrien arteko desberdintasuna era oso argi eta laburrean azaldu behar da: *"lehen mailako iturriak aztertzen ari garen garaiko aztarnak dira eta bigarren mailakoak garaiaren ondoren sortutakoak"*. Kontzeptu hau adibideekin laguntzea ezinbestekoa da: lehen mailako iturri bat Erdi Aroan egondako edozein objektu bat da (armadura bat, erreminta bat…) nahiz eta idatzizkoa izan (Erdi Aroko gutun bat lehen mailako iturri bat da garai hau "bizi" izan zuelako) esan behar zaie ikasleei. Bigarren mailakoak, adibidez, Erdi Aroaren ostean, eta Erdi Aroari buruz hitz egiten duten lan zientifikoak direla azaldu behar zaie. Uste dugu adibide hauekin argi ulertuko dutela ezberdintasuna.

Ondoren Carr-en (1961) hitzak erabiliz Historia egitea edo ezagutza historikoa sortzea iturriak interpretatzea zela esan behar diegu. Hau da, Historiaren atzean beti

iturri historikoak egon behar direla azalduko dugu eta hauen garrantzia aipatu, hauek gabe Historia eraikitzea ezinezkoa bait da. Hala ere adierazi behar diogu ikasleari iturriak ez dutela beraien kabuz informazio guztia ematen, hauei erabilera egokia eman behar zaie alegia. Horrela ba iturriak irakurtzen (edo haien esanahi zein den) beharrezkoa da. Bestetik iturriak aztertu behar dira galdera egokiak eginez (hemen argazki edo bideo batean aurrean; nortzuk agertzen dira? zer egiten dute? zergatik?... galderak egin behar dituztela azaldu behar zaie eta hurrengo atalerako kontuan hartzeko). Baina iturriak interpretatu egin behar direla ere adierazi behar zaie, hau da, zein da iturri horren egilearen helburua edo zertarako sortu zen (gure praktikaren harira esan behar zaie zein asmo dauka desfile militar baten bideoaren difusioa adibidez).

Orain iturrien klasifikazioan sartuko gara. Ikasleak nahiko era argian ikusi dezake klasifikazio hau (ikusi 3. GEHIGARRIA). Irakaslearen papera hemen aipaturiko eskema azaltzea izango da iturri batzuen edo beste klasifikatzeko irizpideak azalduz (adibidez lehen mailakoak idatzizkoak izan daitezke ala irudiak…). Hemen oso garrantzitsua izango litzateke adibide ugarien erabilpena: iturri ikonografiko bat XVIII. mendeko koadro bat izan daiteke, ahozkoa aiton-amonen Espainiako Gerra Zibilaren narrazio bat…

Iturriak azaldu ondoren jakintza historikoa nola eraikitzen den azaltzeko garaia da. Hemen iraganak datuak ematen dizkigula azaldu behar zaie (lehen mailako iturriak) eta datu horiek orainaldia interpretatzen dira (bigarren mailako iturriak). Ondorioz historia iturririk gabe eraikitzea ezinezkoa dela azpimarratu behar da berriro ere. (ikusi 4. GEHIGARRIA).

Lehen ataleko azkeneko diapositiban metodo historikoa nabardura askorekin eta oso era xumean azaldu dugu Triboren (2005, 167) eskema euskarara itzuli ondoren (ikusi 5. GEHIGARRIA) ikasleei erakutsiko zaie, ondoren datorrenarekin erlazionatuz eta ikasleak momentu oro jakin dezan praktika nola burutu behar duen. Diseinuan proposaturiko hasierako galderak- *zer ari dira naziak Parisen?* eta *nola iritsi dira?* izango lirateke. Ondoren ikasleek behin behineko hipotesi bat aukeratu beharko luke (gehigarria) eta kontrastatu beharko luke lehen mailako iturriekin (argazkiak eta bideoak) eta bigarren mailako iturriekin (lan honen bibliografian agertzen diren II Mundu Gerrako liburuen nik neuk burututako transposizio didaktikoarekin gehigarria).

6.2. Proposamen didaktikoan lehen mailako iturrien erabilera

Lehenengo diapositiban ikasleari erantzun nahi den galdera-edo arazo historikoa planteatzen zaio: *Zertan ari dira naziak Parisen?* eta *Nola iritsi dira honaino?* Diseinuaren lehen galdera honakoa da: *"Argazkiak ikusi ondoren zertan zeuden, zure ustez, Hitler eta buruzagi nazi garrantzitsuenak Eiffel dorrearen aurrean?"* eta galderarekin batera honako irudia erakusten zaio (azpititulurik gabe, noski):

1. Irudia[17]: Hitler eta buruzagi nazi nagusienak Parisen. Aurreko pertsonak: Martin Bormann (ezke.); Wilhem Keitel (eskuinerago); Albert Speer (erdian), Adolf Hitler (honen eskuinean) eta Arno Breker (eskuinean). 1940ko ekainaren 23an.

Irudi hau ikusi ondoren ikasleak lau hipotesiren artean aukeratu behar du:

a) *Frantziako eskuin alderdiak nazismoaren ideologia Frantzian hedatu nahi dute. Horretarako Hitler Parisera gonbidatu dute hainbat ekitaldi politikoetan parte hartzeko.*

b) *Frantziarrek nazien boterea ikusi ondoren Alemaniaren aurkako gerra saihestu nahi dute. Horretarako Hitler deitu dute konponbide baketsuak lortzeko.*

c) *Hitlerrek Frantziaren aurkako guda baten ondoren Paris konkistatzea lortu du.*

d) *Hitlerrek Alemanian beste Eiffel dorre bat eraiki nahi du eta horretarako originala ikustera joan da Parisera.*

[17] https://www.bild.bundesarchiv.de/cross-search/search/_1400947018/?search[view]=detail&search[focus]=2

Ikasleek galdera hau erantzun ondoren lehenengo bideoa[18] ipiniko zaie. Nahiz eta oso bideo laburra izan ekintza ugari agertzen dira bertan. Guk bideo honekin lortu nahi genuen gauzetariko bat ikasleak bertatik hipotesia argitzen jarraitzeko beharrezko informazioa ateratzea da. Baina arazoa ikasleak bere kabuz bideo honetatik informazio konplexu hori nola atera ote dezakeen da, hain zuzen ere. Esan beharra daukagu hau izan dela MAL honekin topatu dugun arazo handienetako bat. Hala ere konponbidea uste baino sinpleagoa zen: guk bideoa aldez aurretik behin eta berriz ikusi ondoren ekintza garrantzitsuenak identifikatu genituen, jardueraren momentuan ekintza horiek ikasleari idatziz emango dizkiegu hark identifika ditzan. Horrela ba bigarren galdera hau era egokian erantzuteko ikasleak bideoan arreta ipini behar du, hau delarik:

2-Jarraian aipaturiko ze ekintza agertzen dira bideoan?

a) *Hitler Eiffel dorrearen aurrean.*
b) *Tropa alemaniarrak Garaipen Arkuan desfilatzen.*
c) *Alemaniar jeneral bat (lepoan Burdinazko Gurutzearekin) zaldi gainean alemaniar soldaduak agurtzen.*
d) *Soldadu alemaniarrei dominak ipintzeko ekitaldi bat.*
e) *Hildako soldadu alemaniarrei omenaldia.*
f) *Erich Raeder alemaniar itsas armadaren (Kriegsmarine) buruzagia eta Hermann Goering aire armadaren (Luftwaffe) buruzagia.*
g) *Alemaniar eta frantziarren arteko negoziaketak Rethondesen, I. Mundu Gerran erabili zen tren bagoi berean.*

Bideoa lehen aldiz ikusi ondoren ikasleei galdetuko diegu ea zeintzuk diren ikusi dituzten ekintzak. Haientzat batzuk identifikatzea oso zaila izango da noski, haiek ez dute jakingo nortzuk diren Erich Raeder edo Hermann Goering adibidez. Emaitzak denen artean ikusi ondoren bideoa berriro ipiniko da, baina orain ekintza bat agertzen denean bideoa gelditukо dugu ikasleak ikus dezan. Hau egin eta gero argazki hau erakutsiko diegu (azpititulurik gabe beti ere):

[18] https://www.youtube.com/watch?v=KAFc1ED_oPs 3:05 min

Bundesarchiv, Bild 146-1982-089-18
Foto: o.Ang. | 22. Juni 1940

2.Irudia[19]: Mahaian eserita Wilhem Keitel (ezkerrean) eta Charles Huntziger (eskuinean) paper bat (Frantziaren kapitulazioa?) elkartrukatzen dute Compiegne-ko (Rethondes) basoan. 1940ko ekainaren 22a. Beste pertsonaiak nor diren ez da zehazten, kristalaren atzean eszena ikusten Himmler? egon daitekeelarik.

Orain hirugarren galdera egingo diegu:

3-Bideoa eta argazkiak ikusi ondoren, zergatik antolatu dituzte naziek hainbat ekitaldi militar Frantzian?

a) Frantzia guda baten ostean menperatu ondoren, naziek desfile bat antolatu dute Frantziaren aurkako garaipen militarra ospatzeko.
b) Naziek Frantzia era baketsuan hartu dute, gerrarik gabe. Beraz, desfileak negoziazio baketsu horien testuinguruan burutu dira.
c) Tropak Hitlerrek Frantzian emango dituen hitzaldiak ikustera doaz.

Hemen suposatzen dugu ikasle gehienek hipotesi zuzena aukeratzeko informazio nahikoa edukiko dutela (ikus gaitasun kognitiboen atala beherago) eta gehienek galdera honetan hipotesia zuzendu dutela edo lehen galderan hipotesi zuzena aukeratuz gero mantenduko dutela uste dugu.

Hala ere ikasle batzuek hipotesi egokira iritsiko ez direlakoan gaude. Ondorioz informazio gehiago ematea erabaki dugu. Horretarako bigarren bideo[20] bat erabiliko dugu. Bertan Frantzia, Belgika eta Holanda inbasioen ekintzak agertzen zaizkigularik (*Blitzkrieg*-a edo Tximista Gerra, frantziar soldadu gatibuak, Dunkerkeko ebakuazioa…).

Bideoa ikusi ondoren laugarren galdera bat egingo diegu gure ikasleei:

[19] https://www.bild.bundesarchiv.de/cross-search/search/_1400937737/?search[view]=detail&search[focus]=1
[20] https://www.youtube.com/watch?v=Gqqn1eUKS1o 3:22 min

4-Orain ikusiko duzun bideoa desfilea baino aste batzuk lehenagoko gertakizunak islatzen ditu. Ze erlazio ikusten duzu bi bideoen artean?".

Hemen ikasleari ikusitako guztia erlazionatzeko eskatzen zaio, hots; alemaniar parada militar bat Parisen, bi herrialdeen arteko negoziaketak eta Frantziako Batailako hainbat ekintza. Orain nahiko ziur gaude ikasle guztiek erlazioa era egokian burutuko dutela eta testu motz eta zuzen batean islatuko dutela emandako informazio guztia. Bestetik bi irudi hauek erakusten dizkiegu hipotesia indar dezaten:

3.Irudia[21]: Soldadu frantziar gatibuak alemaniarren eskuetan. 1940. urtea..

[21] https://www.bild.bundesarchiv.de/cross-search/search/_1400936729/?search[page]=77

4.Irudia[22]: Wehrmacht-eko soldaduak Frantzian. 1940. urtea.

Praktika azaltzen jarraitu baino lehen xehetasun batzuk adieraztea egokia dela uste dugu. Horietako lehena da orain arte soilik lehen mailako iturriak erabili ditugula, beraz galdera honetatik ateratzen diren erantzunak ez dira liburu edo testuliburuak erabiliz egin. Bestetik irakaslearen papera atal honetan ikasleak laguntzea besterik ez da izan. Hau da, ikasleak bere kabuz sortutako testu baten aurrean aurkitu beharko gara. Ondorioz ezin dezakegu hemen konplexutasun handirik eskatu, hemen baloratuko dena, aldiz sinpletasuna izango da. Ikasle guztiek jakin behar dute orain Alemaniarrek Frantzia militarki menperatu zutela eta horren testuinguruan Parisen desfile bat burutu zutela, hala nola frantziarrek alemaniarren aurrean errendizioa sinatu zutela.

Argi ikusten denez informazio honek sakontasuna behar du. Jardueraren momentu honetan Mendebaldeko frenteko kontzepturik sinpleenak ikasle guztiek barneratu dituzte. Orain kontzeptu sinple hauetatik konplexuagoetarako bidea hasiko dugu. Horretarako geuk Bigarren Mundu Gerraren hainbat liburu espezializatu irakurri ostean burututako sintesi bat (iturrien fidagarritasuna ikasten ari garenez autoreen izenak ipintzea erabaki dugu ikasleak ikus dezaten) irakurriko eta azalduko zaie ikasleei honakoa:

6.3. Proposamen didaktikoan erabili ditugun bigarren mailako iturriak

Jarraian azaltzen den atala II. Mundu Gerran Mendebaldeko frontean eman ziren ekintza nagusiak biltzen ditu. Esan, testu hau ez dela ikasleei emango eta oso era egoki batean azaltzen saiatuko gara. Testuak bi zati dauzka. Lehenengoan alemaniarrek Frantzia hain erraz konkistatu izanaren faktore bat azaltzen da; *Blitzkrieg*-a hain zuzen ere. Jakin badakigu kontzeptu hau ikasleei azaltzeko nahiko zaila dela, horretarako

[22] https://www.bild.bundesarchiv.de/cross-search/search/_1400945484/?search[view]=detail&search[focus]=4

diapositiba bat sortu dugu (ikusi 6. GEHIGARRIA) haiek uler dezaten. Testuaren bigarren atalean aldiz, Mendebaldeko fronteko ekintza nagusiak aipatzen dira. Hau azaltzeko Europako mapa bat erabiliko dugularik. Jarraian ikasleei azalpenak emateko geuk erabilitako testua azaltzen da:

1-Blitzkrieg-a eta Mendebaldeko frontea

1.1-Blitzkrieg-a

Bigarren Mundu Gerraren hasierako momentuetan (1940-41 urteetan) Alemania konkista izugarriak egin zituen, (Polonia, Danimarka, Norvegia, Holanda, Belgika); Frantzia garaiko potentzia militar nagusienetarikoa aste gutxi batzuen ondoren menderatuz. Michel (1972) eta Hastings (2011)-ren aburuz frantziar eta alemaniar indar eta errekurtso militarrak nahiko orekaturik zeuden 1940ko maiatz eta ekainean; oreka hau apurtu zuena gerra estilo berri bat izan zen, Blitzkrieg edo "Tximista Gerra" deiturikoa. Artolak (1998, 20) gerra modu hau nola burutzen zen azaltzen digu:

> *[Blitzkrieg-a] etsaiaren frenteko puntu bat hausteko, adar militar guztien elkarlana beharrezkoa zuen; haustura horretatik unitate akorazatu eta motorizatuak sartuko ziren, atzean utzitako etsaien indarrei kasurik ez eginez, gerra etsaiaren atzegoardiara eramanez. Bitartean infanteriak hausturaren hegalak eraso posibleetatik babesten zuen. Hau guztia gertatzen zen bitartean abiazioak lurrean zeuden etsaien hegazkinak eta komunikazio kateak bonbardatzen zituen; horrela zeruetako nagusitasuna lortzen zuen, errefortzuen mugimendua galarazten zuen eta lur indarren geldialdia eragiten zuen. Azkenean infateriak gerra gurdiak atzean utzitako erresistentzia poltsak suntsitzen zituen.*[23]

Honi guztiari frantziar doktrina militar zaharra gehitu behar zaio Burleigh (2010) esaten duen bezala doktrina honen oinarria defentsa estatikoan nagusitasuna lortzea zen; honen ondorioz eraiki zuten Maginot Lerroa gerra arteko garaian, 1940ko udaberrian alemaniarren mugikortasun azkarraren aurrean alferrikakoa izango zelarik. Heinz Guderian jeneral alemaniarrak inguratu egingo bai ditu.

1.2-Mendebaldeko frontea (Holanda, Belgika eta Frantzia)

Artolak (1998) dioen bezala 1940ko udaberrian Hitlerren helburuak mendebaldean zeuden; Hitlerrek Frantzia garaitzen bazuen SESB inbaditzeko erraztasunak izango zituen. Gainera mugimendu honekin gerra bi fronteetan egitea ekiditu nahi zuen I Mundu Gerrako esperientzia txarragatik.

Frantzia eta Alemaniaren arteko mugan frantziarren fortifikazio lerro bat zegoen (Maginot lerroa). Ondorioz Alemaniak Frantzia inbaditzeko Holandatik eta Belgikatik sartu zen.1940ko maiatzaren 10ean Alemaniak Holanda inbaditu zuen eta

[23] "[la Guerra Relámpago] suponía la estrecha cooperación de todas las ramas para realizar una brecha en el frente enemigo, a través del cual penetraban las unidades acorazadas y motorizadas, que sin preocuparse por las fuerzas contrarias que dejaban atrás, llevaban la lucha a la retaguardia enemiga. Mientras tanto la infantería defendía los flancos de la brecha ante los posibles contraataques. A su vez, la aviación bombardeaba los aviones enemigos en tierra y las líneas de comunicación; de este modo, adquiría la supremacía aérea sobre el campo de batalla, impedía el envió de refuerzos y producía la paralización de las fuerzas terrestres. Finalmente, la infantería reducía las bolsas de resistencia que los carros de combate habían dejado tras de sí."

maiatzaren 15ean holandar armada errenditu ostean holandako erregina eta gobernua Ingalaterran erbesteratu ziren.

Baina Frantzia inbaditzeko eraso nagusia Belgikan eman zen, bi erasoren bitartez. Lehenengo erasoan parakaidista alemaniarrak hainbat puntu estrategiko eta zubi hartu zituzten. Honen aurrean Aliatuak (Frantziako eta Erresuma Batuko troparik onenak) Belgikara abiatu ziren alemaniarrak gelditzeko asmoarekin. Hastings-ek (2011, 74) eraso aliatu honen aurrean naziek zer egin zuten adierazten digu: "Luftwaffea honen aurrean ez zuen ezer egin, Aliatuek Hitlerrek nahi zuena egiten ari zirelako: hegoaldean azkar mugitzen ari zen ejertzito alemaniar nagusien hegalak Aliatuen mehatxutik babestea hain zuzen ere"[24] *Aliatuak tranpan erori ondoren Belgika eta Luxenburgotik tanke eta ibilgailu ugari sartu ziren Ardenas basotik.*

Mugimendu hau sorpresa izan zen, frantziarrek uste bai zuten baso horretatik tankeak igarotzea ezinezkoa zela eta ondorioz ez zuten lekua asko babestu, soilik erreserbistak erabili zituzten Michel (1972) esaten duen bezala. Alemaniarrek horrela Mosa ibaia zeharkatu zuten eta lau egunetan berrehun kilometro egin zituzten. Blitzkrieg-a erabiliz soldadu aliatuak isolatzea lortu zuten. Artola (1998) soldadu isolatu horien kopuruak ematen dizkigu 338.000 (horietatik 140.000 frantziarrak). Tropa aliatu horiek Dunkerken (Frantziako iparraldean) bilduko dira eta handik Ingalaterrara iristea lortuko dute.

Belgika eta Holanda konkistatu ondoren Frantziaren zoria alemaniarren eskuetan zegoen. Holandaren eta Belgikaren defentsan frantziarrek tropa asko galdu zituzten, alemaniarrek, aldiz, oso baja gutxi izan zituzten. Gauzak horrela ekainaren 5ean alemaniarrak Frantzian sartu ziren eta oso erraz egin zuten aurrera. Ekainaren 9an Sena ibaia erraz zeharkatzea lortu zuten, nahiz eta frantziar armadak aurre egin. Hala ere, nahiz eta Frantziako bataila laburra izan gatazka gogorra izan zen, Burrin (2004, 17) dioen bezala: "(...) gatazka laburra izan zen, eta proportzionalki [Lehen Mundu Gerra baino] odoltsuagoa: 92.000 hildako eta 200.000 zauritu baino gehiago frantziarren aldean ; alemaniarren aldean horien erdia baino gutxiago"[25]

Porrot militar honen aurrean Frantziako gobernuak ospa egin zuen eta Alemaniako armadak ekainaren 14ean Parisen sartu zen. Ekainaren 16ean gobernu frantsesaren buruzagia dimititu zuen eta haren ordez Petain mariskala jarri zen gobernuburu. Petainek Hitlerri armistizioa sinatzeko eskatu zion. Armistizioa ekainaren 22an sinatu zen Rethondes hirian. Aipatu armistizio hau sinbolismoz beteta dagoela Artola (1998), Hastings (2011) eta Burrinek (2004) diotena oso interesgarria da; armistizioa sinatzeko Hitlerrek Lehenengo Mundu Gerran alemaniar armistizioa sinatu zen tren bagoi berdina erabili zuen; baina urrunago joan nahi zuen, frantziar agintariak 1918an alemaniarrek erabilitako eserlekuetan eseri ziren (galtzaileen tokian) eta alemaniarrek frantziar eserlekuetan ipini ziren (irabazleen tokia).

Burleigh (2010) armistizio honekin Alemaniak Lehenengo Mundu Gerrako "sindromea" garaitu zuela adierazten du. Bitxikeriak aparte, armistizio honekin

---

[24] "La Luftwaffe no efectuó intento alguno de interferir, pues los Aliados estaban haciendo precisamente lo que había esperado Hitler: eliminar la amenaza que se cernía sobre el flanco del grueso de los ejércitos alemanes que avanzaban con brío más al sur".

[25] "(…) el combate fue más breve, y proporcionalmente más sangriento [que la Primera Guerra Mundial]: 92.000 muertos y más de 200.000 heridos del lado francés: del lado alemán, menos de la mitad"

Alemaniak Alsazia eta Lorena anexionatzeaz gain Frantzia bi zatitan erdibanatu zen Burrin (2004, 23) adierazten duen bezala: "banalerroa era zeihar batean zihoan Espainiako mugatik Tours-eraino, handik ekialderantz joanez Ginebrarako norabidean.[26] *Zati Atlantikoa nazien kontrolpean geratu zen eta hegoaldeko zatia Petain mariskalak zuzenduriko gobernu titere bat ezarri zen: Vichy-ko Frantzia.*

Honen ondorio nagusiena Michel (1972), Artola (1998), Burrin (2004), Burleigh (2010) eta Hastings-en (2011) aburuz Frantziak Erresuma Batua Alemaniaren aurrean bakarrik uztea izan zen (AEB ez zen gerran sartu eta SESB Hitlerren aliatua zen oraindik).

Agerikoa denez testua era argian ulertzeko zailtasunak edukiko dituzte baita ere hitz tekniko eta konplexuak azaltzea (Blitzkreig, armistizioa, Luftwaffe…) beharrezkoa izango zaigula. Honek irakasleak gaia oso ondo ezagutzea suposatuko du. Baina azalpena era geldoan emango dugu, puntu eta hitz guztiak argituz. Bestetik ulertzen dugu guk sortutako sintesian agertzen diren ezagutzak DBH 4. mailarako nahiko altuak direla. Hala ere oinarri sendo batekin ikasleak hauek ulertuko dituela uste dugu. Emaitza hauek ikasleari proposaturiko bosgarren galderan ikusiko ditugularik:

5-Emandako informazio guztiarekin idatzi testu bat 1940. urtean Mendebaldeko frontean gertatu ziren ekintza nagusiak aipatuz (erabili beharreko hitzak: Belgika, Holanda, Blitzkrieg-*a, Rethondeseko armistizioa, Pariseko desfilea, Ardenak Basoa, Maginot Lerroa…).*

Azkeneko galdera honetan baloratuko da Mendebaldeko fronteko sekuentzia kronologikoa era egokian burutzea eta aipatzen dizkiogun hitzak erabiltzea izango da. Hala ere guk baloratuko dugun gauzarik garrantzitsuena lehen mailako iturri eta bigarren mailako iturriekin sintesi bat burutzea eta sintesi hori testuan islatzea izango da.

Guztiarekin amaitzeko ikasleari ikusi duenaren gainean zer sentitu duen galdetuko diogu. Martinez eta Maqueda (1989) irudi ororekin ikuslea ikusten ari denarekin enpatia bat sortzen duela esaten zuten. Guk geure proposapen didaktikoan ikasleari ikusten ari denarekin identifikatzea eskatuko diogu. Hau ez diogu zuzenean galdetuko ikerketa honen helburua ez bait da enpatia lantzea, baina klasea amaitu aurretik bideoa ikusi ondoren ikasleek zer sentitu duten galdetuko zaie. Horretarako Hastings (2010, 99) Pariseko desfilea ikusten ari zen neska ingeles baten inpresioa kontatuko diegu:

> Munstro belikoa Zelai Eliseotatik barrena zihoan: zaldi distiratsuak, gerra gurdiak, makineria, kanoiak eta milaka soldadu akats gabeko prozesioan, pozik eta amaigabe… suge berde eta erraldoi bat bezala hiri suntsitu baten bihotzetik errestatuz. (…) Ni isilik nengoen, aldi historiko baten lekuko nintzela jakinez, hala ere ez nuen inolako emoziorik sentitzen. Baina orduak joaten zirela ikusiz eta ikuskizuna amaitzen ez zuenez , gonbidapena onartzeagatik lotsa sentitzen hasi nintzen. Londresen zeuden nire familia eta lagunetan pentsatzen nuen, eta geroaldiak eragiten zien beldurraz ere ohartzen hasi nintzen.[27]

[26] "La línea de demarcación ascendía oblicuamente desde la frontera española hasta la altura de Tours, para torcerse después al este en dirección a Ginebra."

[27] "El monstruo bélico avanzaba por los Campos Elíseos: caballos refulgentes, carros de combate, maquinaria, cañones y miles y miles de soldados en inmaculada procesión, radiante e interminable…como una serpiente verde y gigante que se arrastraba por el corazón de una ciudad

Ondoren bost minutuko eztabaida txiki bat sortzen saiatuko gara (ikusi 14. GEHIGARRIA) klasean ikasle batzuek militar naziek zer sentitu ote zuten asmatzen saiatuko direlarik. Beste batzuek garaituen sentimenduak asmatzen saiatu beharko dira (militar frantziarrak, neska ingelesa…). Enpatia historikoa ikertzea beste gai interesgarri bat izango litzateke eta geuk soilik ikerketa honetarako sarrera txiki bat besterik ez dugu burutu.

7. PROPOSAMEN DIDAKTIKOAREKIN LANTZEN DIREN GAITASUN KOGNITIBOAK

Praktika edo diseinu didaktiko honek ikasleak hainbat gaitasun era egokian burutzea eskatzen du. Horretarako Tribók (2005, 164) ikerkuntza sustatzen duen diseinu didaktiko egoki orok landu beharreko gaitasun kognitiboak hartuko ditugu irizpide bezala eta ea gure diseinuan betetzen diren ala ez ikusiko dugu.

Tribók interbentzio didaktikoa hiru faseetan banatzen du, bakoitza gaitasun kognitibo batzuk lantzen dituelarik:

LEHEN MAILAKO ITURRIEN IKERKETA ETA GAITASUN KOGNITIBOAK		
1. **Iturriekin kontaktu zuzena** edo iturrietatik informazioa ateratzeko fase enpirikoa	2**. Hipotesiaren behin behineko egiaztatzea** edo iturrien interpretapen fasea	3. **Jakintzaren eraikuntza** edo hipotesiaren behin betiko finkazioa.
-Zuzeneko behaketa -Informazioaren erregistroa -Informazioaren sistematizazio eta antolaketa -Informazioaren analisi eta prozesamendua	-Informazioaren interpretapena -Emaitzen konparazio eta erlazioa -Hipotesiaren behin-behineko egiaztatzea -Inferentzia/dedukzioa -Generalizazioa	-Egiaztatutako hipotesiaren formulazioa (tesia edo eraikuntza berria) -Jerarkizatu/ kontestualizatu -Emaitzak aplikatu -Arazoak argitu eta erabakiak hartu.

Orain Triboren taula gure diseinu didaktikoarekin alderatuko dugu. Lehenik eta behin fasez fase joango gara ea gure proposapenak aipaturiko gaitasun kognitiboak lantzen dituen edo ez ikusteko.

Gure proposapenean ikasleek lehen mailako iturriekin kontaktu zuzena daukate. 1940ko Mendebaldeko fronteko hainbat bideo eta argazki erakusten zaizkie inolako bitartekorik gabe, hau da, irudiak soilik ikusten dituzte idatzizko edo ahozko euskarririk gabe (bideoak soilik musikaz lagunduta agertzen dira). Alde batetik zuzeneko behaketa lantzen da, lehen esan bezala, iturriak inolako "oztoporik" gabe agertzen bait dira eta

---

despedazada(…) Yo guardaba silencio, consciente de estar formado parte de un momento histórico, y, pese a todo, no sentía ninguna emoción particular…Sin embargo, viendo que pasaban las horas y aquel espectáculo parecía no acabar nunca, comencé a sentir cierta vergüenza por haber aceptado la invitación. Pensé en mi familia y mis amigos, que se encontraban el Londres, y en el temor que debía de provocarles el futuro."

ikusi dugunez behaketa honetan irakasleak ez du esku hartze handirik egingo . Beste alde batetik ikasleak informazioaren erregistro zuzen bat egin behar du ezkutuan dagoen zerbait (gure kasuan galdera bat) argitzeko. Era berean erregistratutako informazio hau bere buruan sistematizatu eta antolatu behar du. Amaitzeko erregistratutako, sistematizatutako eta antolatutako informazioaren analisi eta prozesamendu egoki bat burutu behar du.

Hau guztia adibide batekin ulertuko dugu. Jardueraren lehen atal batean ikasleari naziek Frantzia konkistatu ondoren eginiko hainbat ekitaldi eta ospakizun militarren bideo bat ikusteko aukera ematen zaio. Bideoa zuzenean ikusten du (ez dio inork bideoa deskribatzen) eta bertan dauden hainbat ekintza (nazien desfile bat, dominak ipintzeko ekitaldi bat, hildako soldadu alemaniarrei omenaldia…) bere buruan erregistratzen ditu. Ondoren ekintza hauek antolatu eta sistematizatzen ditu, jasotako pasarte desberdinak ikasleak uste duen irizpide bakar batean (II Mundu Gerra) txertatzen ditu. Gure diseinua burutu genuenean ikasleak gerra arteko garaiko totalitarismoak ezagutzen zituen baita ere II. Mundu Gerrako aurrekari eta lehenengo faseak ere.

Horrela ba, informazio hau analizatu eta interpretatu egiten du. Horrela ikaslea soldadu alemaniarrei dominak ipintzeko ekitaldiaz ohartu bada, suposa dezake Frantziaren aurkako guda bat egon dela militarrak saritzen ari direlako. Hau guztiari hildako soldadu alemaniarren omenaldia gehitzen badiogu hipotesia formulatzeko erraztasun gehiago izango ditu, hots, soldaduak hil egin badira gerra bat egon da. Baina erlazio honekin soilik ezin da ondorio orokorrik atera, soldadu horiek gerrarekin zerikusirik ez duten hainbat arrazoirengatik hil zitezkeelako (gaixotasuna, istripu bat…). Beraz ikasleak jardueraren lehen fase honetan ikusten dituen elementu guztiak zehaztasun handiz kontuan izan behar ditu eta denen batuketa bat egin. Hemen aipatu behar da ikasleak dituen ezagutza mailak.

Nire jardueraren bigarren fasean hipotesiaren behin behineko egiaztatzea burutuko dut. Hau egin baino lehen emandako informazio guztiaren interpretapena burutu beharko dute, hots ikusi dituen ekintza guztiek duten esanahia bilatu behar dute. Esanahia bilatu ondoren datuen konparazioa eta erlazioa egiteko unea iritsi da. Ikusitako ekintzak erlazionatuz eta konparatuz lehenengo galderan aukeraturiko hipotesia indartu edo errefusa dezakeelarik. Hau egiteko ikaslea momentu orotan bere dedukzioaz edo inferentziaz (gauza baten dedukzioz beste bat atera, hots, ondorioa) baliatuko da eta kasu bakanak aztertu ondoren generalizazio edo orokortasun batzuetara helduko da.

Hau gure praktikaren logikaren bidez azalduko dugu berriro ere. Dagoeneko ikasleak hipotesi egoki bat aukeratzeko beharrezko baliabideak eskaini zaizkio. Bideo eta argazkietan parada militar bat, negoziazioak eta gerra ekintzak ikusteko aukera izan du. Orain ikasleak ekintzak osotasunean interpretatu behar ditu, ze esanahi dauka parada militar bat, negoziazio batzuk … eta horien batuketa bat egin behar du. Informazio hori interpretatu ondoren ekintzen konparazioa eta erlazioa burutzen ditu: bataila bat, ospakizun militar batzuk eta negoziaketa batzuk erlazionatu behar ditu. Dedukzioa eta inferentzia erabiliko ditu behin behineko hipotesi bat sortzeko : gerra bat egon da eta ondorioz naziek desfile bat antolatu dute, beraz Frantzia ez da era baketsuan konkistatua izan eta hau horrela baldin bada negoziazioak errendizio bat dira. Ez gara orain datuen analisian sartuko baina oraingoz esan ikasle gehienek goian aipaturiko hipotesira heldu zirela, nahiz eta maila desberdinak daude ikasleen artean.

8. PROPOSAMEN DIDAKTIKOAREN HELBURUAK

Diseinu didaktiko honek lortu nahi dituen helburuak era xumean azalduko ditugu, hau azaltzerako orduan jorratu bait ditugulako. Hauek dira helburu horiek:

1. Ikasleak Historiaren eraikuntzaren metodologia ezagutzea.
2. Ikasleak iturri historikoen definizio eta klasifikazioa ezagutzea.
3. Ikasleak II Mundu Gerrako Mendebaldeko frontean eman ziren ekintza nagusienak ezagutzea.
4. Ikasleak Historia eraikitzeko metodologia era egokian erabiltzen jakitea.
5. Ikasleak iturrien klasifikazioa era egokian egiten jakitea.
6. Ikasleak iturrietatik beharrezko informazioa ateratzen jakitea.
7. Ikasleak bakarka lan egiten jakitea.
8. Ikaslearengan enpatia historikoa sortzea.

9. DATUEN ANALISIA

Jarraian diseinu didaktiko honetan jasotako datuak analizatuko ditugu. Ikasle kopuru oso handi batekin lan egin dugula aipatu behar dugu (berrogeita hamabost ikasle osotara). Alde batetik ulertzen dugu praktika honek ikasle bakoitzaren datuen analisi pertsonala suposatzen duela. Horregatik analisi kuantitatibo baten ordez analisi kualitatiboa egitea erabaki dugu, ikasle bakoitzaren datuen ezaugarriei garrantzia emanez analizatuko diren ikasle kopurua baino.

Honengatik guztiagatik sei ikasleko lagin bat aukeratzea erabaki dugu. Hala ere lagin honetako ikasleak ez dira era ausazkoan aukeraturik izan. Sei ikasle hauetan praktikan zehar beste ikasleek erakutsi dizkiguten maila ezberdinak ordezkaturik daude. Bestetik esan, ikasleen anonimatua babesteko haien izenak borratuak izan direla eta haien ordez letrak erabili ditugu A eta F bitartean hain zuzen ere. Horrela ba ikasleen datuak banaka aztertzeari ekingo diogu orain.

Honekin amaitzeko adierazi behar dugu diseinu didaktiko honetatik ateratzen diren datuetatik ezin dela inolako orokortasunik atera. Datu hauek testuinguru zehatz eta mugatu bati lotuak ageri direlako. Bestetik erabili ditugun ikasleen kopurua ez da lagin estatistiko nahiko handia orokortasunak edo patroiak ateratzeko. Beraz gure datuak geure ikerketa honetarako soilik balio dute.

9.1. A ikaslea

A ikasleak lehenengo argazkia ikusi ondoren Hitler eta buruzagi naziak Eiffel dorrearen aurrean egotearen honako hipotesia aukeratu du: *frantziarrek Nazien boterea ikusi ondoren Alemaniaren aurkako gerra saihestu nahi dutela. Horretarako Hitler deitu dute konponbide baketsuak lortzeko.* Ikus daitekeenez ez du hipotesi zuzena aukeratu. Ondorioz suposatu dezakegu ikasle honek II M.G-ko mendebaldeko fronteari buruz dituen aurrezagutzak eskasak direla; ez bait du inoiz entzun gerra honetan Frantzia eta Alemaniaren arteko guda bat egon zela. Beraz gai hau ezezaguna zen berarentzat praktika egiterako orduan

Ondoren bideoa ipini zaio eta denen artean ekintza guztiak identifikatu ditugu bigarren galdera erabiliz[28]. Ekintza hauek ikusi ondoren gure ikasleak hipotesia aldatu egin du: "Frantzia, guda baten ostean menperatu ondoren naziek desfile bat antolatu dute Frantziaren aurkako garaipen militarra ospatzeko." Hau da ikasle honek oraindik ez ditu frantziarren eta alemaniarren arteko borroka militarrak ikusi, baina lehenengo bideoak bere hipotesia aldatzeko balio izan dio. Ondorioz bideotik beharrezko informazioa ateratzeko (ikusi gaitasun kognitiboen atala) gai izan da hipotesi hori aukeratzeko.

Honen ondoren bigarren bideoa erakutsi zitzaion, hots, Frantzia eta Alemaniaren arteko gerraren bideoa. Laugarren galderan ikusi dituen iturriak erlazionatzeko eskatzen zaio eta honakoa idazten du: "Bukaerako bideoa Parisen kontrako gerra adierazten du eta hasierakoan honen omenaldia ageri da, garaitu duten ikurra [emanez] eta hildako jendea agurtzen" .

Honi buruz esan behar den lehenengo gauza da ikusi dituen iturrien erlazio zuzena egin duela, gerra bat egon da eta ondoren ospakizunak, hain zuzen ere. Hala ere diskurtsoa erredaktatzerako orduan gabeziak nabari zaizkio. Alde batetik ez du aipatzen nortzuk egin duten gerra naiz eta guk suposatu dezakegun (gerra Parisen aurka zela esaten du), bestetik ez du esaten nortzuk dira ospakizunak egiten ari direnak, hau da frantziarrak ala alemaniarrak diren. Beraz nahiz eta kontzeptu sinpleenak ulertu dituen iturrietatik informazio gutxiegi atera duela uste dugu edo hau ez duela azaldu.

Hau egin eta gero hainbat autoreek Mendebaldeko fronteari buruz esaten dutenaren testua irakurri zuten eta guk azaldu genizkien fronte honetako xehetasunak. Ikasle honek bosgarren galderan honakoa idazten duelarik: "Hasieran Alemaniak Holanda hartzen dute, bitartean frantziarrak Belgika inbaditzen ari dira. Alemaniarrek Belgikara joan nahi zuten, zeren ez zekiten frantsesak han zeudela. Ondoren Maginot Lerroan zeuden. Ez zuten Ardenas Basotik pasa nahi, zuhaitz asko zeudelako, ondoren Blitzkrieg-a planaren laguntzaz pasatzen dute. Ondoren Rethondeseko armistizioa egiten dute eta azkenean Alemaniarrak Paris konkistatzen dutenez Parisko desfilea egiten dute."

Honi buruz esan behar den gauzetariko bat da azkenean ondorio zuzenera iritsi dela, hau da alemaniarrek Paris konkistatu dutela. Hala ere operazio militarra ez du ulertu. Nahasmena ageriko dela demostratzen duen gauzetariko bat frantziarrek Belgika inbaditu zutela esaten duenean da. Bestetik alemaniarrek Ardenas Basotik igarotzearen meritua Blitzkrieg-ari ematen dio, beraz ez du ulertu kontzeptu hau zer esan nahi duen. Hau da Blitzkrieg-a Ardenak igarotzeko estrategia bat moduan ulertu du eta ez gerra estrategia modu bat bezala.

Hala ere agerikoa denez gure errua ere aipatu behar dugu. Ikasle honi gehiegi eskatu diogu, hau da funtsezko kontzeptuak argitu dizkiogu baina hauek sakontzerako orduan nahasmena besterik ez diogu sortu.Ulertzen dugu guk irakatsi nahi genizkion ezagutzak oso konplexuak zirela. Ondorioz esan dezakegu ikasle honi gure proposamen didaktikoarekin bere gaitasunetarako gehiegi eskatu diogula.

[28] Tamalez, ikasleek eman dizkiguten fitxetan ekintza guztiak identifikatuta agertzen dira. Guk badakigu ikasleak horiek identifikatzeko gai ez direla izan, identifikatu ez dituztenak geuk erakutsi dizkiegulako. Ondorioz galdera hau datuak analizatzerako ordurako ez digu balio.

9.2. B ikaslea

Ikasle honek lehenengo galderetan A ikaslearen patroi bera errepikatu du, hots lehenengo galderan bigarren hipotesia aukeratuz eta bideoan ekintzak identifikatu ondoren hirugarren galderan lehenengo hipotesia.

Bestetik ikusi dituen iturriak erlazionatzerako orduan honako idazten du laugarren galderan: "Ikusten dudan erlazioa hurrengoa da: lehenengo alemaniar tropak Frantziara joan zirela, gudaren bidez Frantzia inbaditzera. Hau gertatu ondoren, Frantzia bereganatu zuten eta hori ospatzeko desfile bat egin zutela, bertan hildakoei omen egitez eta beste batzuei dominak ematen."

A ikasleak bezala B ikasleak ikusi duen erlazio zuzena egin du. Diskurtso hau A ikaslea baino beteagoa den arren. Gerra noren artean izan den adierazten digu eta ospakizunak nortzuk egiten dituzten esaten du. Ondorioz ikusten da iturrietatik eskatzen genion informazioa ateratzeko gai izan dela. Interesgarria da A ikasleak bezala militarrei dominak aipatzearen ekintza aipatzea. Honek esan nahi du bideoen ekintza batzuk identifikatu ondoren haien esanahi egokira iritsi dela.

Bosgarren galderan ikasle honek honakoa idatzi du: "Naziek Austria, Txekoslovakia, Polonia…Eta beste asko inbaditu zituzten. Frantziara pasatu nahi zuten arren, Maginot Lerroa zuten tartean eta oso zaila zen pasatzea. Hori lortzeko Holanda eta Belgika hartzen dituzte Frantziari erasotzeko. Beraz lerroko tropa batzuk mugitzen dira. Orduan Ardenak basotik igaroz mugitu ziren [alemaniarrek] frantziar tropak poltsa moduko batean sartu zituzten. Eraso horri Blitzkrieg deitzen zaio. Hortik pasa ziren eta Pariseraino heldu ziren. Han Pariseko desfilea egin zuten haien omenez. Hitlerrek I. Mundu Gerran ondoren, Versalleseko Itunean erabili zuten trena ekartzea eskatu zuen eta bertan frantziarrek alemanek hartutako lekuak hartu zituzten eta Rethondeseko armistizioa gertatu zen. Egun gutxitan Alemanek Frantzia bereganatu zuten."

Hemendik ondorio asko atera ditzakegu. Interesgarria den gauza bat ikasle honek berak zituen aurrezagutzak testuan aplikatu dituela da; naziek Austria, Txekoslovakia eta Polonia inbaditu zituztela esaten duenean. Bestetik operazio militarrak era oso egokian ulertu eta azaltzen ditu. Lehenik eta behin Maginot Lerroa alemaniarren inbasiorako oztopo bat suposatzen duela esaten du. Bestetik oztopo honen aurrean naziek Holanda eta Belgikatik sartu zirela ere aipatzen du baita ere frantziarren tropak mugitzen direla haien aurka joateko (Erresuma batuko troparik ez du aipatzen ordea). Bestetik honen aurrean alemaniarrek eginiko tranpa ere barneratu du eta Ardenetatik igaroz frantziarrak erresistentzia poltsetan sartu zituztela ere. Honetaz aparte poltsetan isolatzearen eraso mota Blitzkrieg-arekin erlazionatzen du. Amaitzeko tren bagoia ere aipatzen du, hala ere bera Versalleseko Itunarekin lotzen du. Versallesko Ituna bake itun bat zen eta Rethondesen sinatu zena armistizioa (su etena). Bestetik oso akats gutxi aurkitu diezaiokegu.

Ikasle honek kontzeptu sinpleak era oso egokian ulertu ditu. Gainera aparte hauetatik abiatuz beste kontzeptu konplexu batzuetara igarotzeko gaitasuna baduela erakutsi du. Hala ere ez du esan zer zen Maginot Lerroa eta Blitzkrieg-a nahiz eta hauek ulertu dituen. Aipatuko dugun gauza interesgarri bat ikasleak aipaturiko tren bagoneko

gertakizuna oso ondo ulertu duela da. Historia errepikatzen dela eta ez dela ez prozesu ez itxi ezta amaitu bat ulertu duela uste dugu.

9.3. C ikaslea

Kasu honetan ikasle honek A eta B ikasleen erantzun berdinak aukeratu ditu.

Hau aipatu eta gero laugarren galderara joko dugu, honakoa erantzun bai du: "alemanek frantziarren aurkako gerra irabazi dute eta ondorioz bigarren bideoan Frantzia konkistatu dutela ospatzen ari dira soldadu alemanak."

Beraz A eta B ikasleak bezala kausa ondorioa ulertu ditu. Hala ere aurreko bi ikasleak ez bezala bi ekintzen erlazioa esaldi baten bidez egiten du, hau da ideiak konektatzen ditu. Besteak aldiz, bi ideiak elkartzeko zailtasunak dituztela erakusten dutelarik.

Baina bosgarren galderan ikasle honek arreta bereganatu digu honakoa esan bai du: "Alemaniarrek Frantzia konkistatu nahi zuten. Frantzia eta Alemaniako mugan Maginot Lerroa izeneko eremu bat zegoen eta bertan frantziarrek defentsa bloke bat zuten, beraz alemaniarrak ezin ziren bertatik sartu. Ondorioz, Holandatik sartzen hasi ziren eta bitartean frantsesak ere Belgika aldera mugitu zituzten tropak. Alemanek hau aprobetxatu zuten eta Ardenak Basotik sartzea erabaki zuten. Frantsesek ez zuten espero alemanak hemendik sartuko zirenik oso eremu menditsua baitzen. Behin alemanak Frantzian sartu zirela Blitzkrieg metodoa erabili zuten Frantzia konkistatzeko. Hau oso eraginkorra izan zen eta aste baten buruan alemanek Frantzia erdia konkistatu zuten. Garaipena ospatzeko Parisen desfile bat egin zuten, tropek Garaipen Arkutik sartuz eta ondoren soldaduei dominak ipini zizkieten eta hildako soldaduei omenaldia egin zieten. Azkenik Rethondeseko armistizioa sinatu zuten Lehen Mundu Gerran Frantiza eta Alemania bakea sinatu zen bagoi berean, baina oraingoan Hitler garaileen lekuan zegoen. Ekintza hau nahiko sinbolikoa izan zen eta Hitlerren harrotasuna erakusten du."

Ikasle honek azaldu diogun guztia ulertzeaz aparte barneratu duela ikusi daiteke. Beste ikasleak ez bezala hainbat kontzeptu definitzen ditu hala nola Maginot Lerroa defentsa bloke bat dela esaten du eta Blitzkrieg-a Frantzia konkistatzeko metodo bat. Gainera Ardenetako tranpa oso ongi esplikatzen du, hala ere ikasle honi buruz bi aspektu oso deigarriak iruditu zaizkigu. Lehenengo gauza da bere testuan bideoetan agertutako ekintzak sartzen dituela hau da ikusitakoaren eta azaldu zaionaren sintesia egiten du. Baina ikasle honen gauzarik deigarriena ekintzen benetako esanahia aurkitzen duela da; hau da tropa alemaniarrek Garaipen Arkutik sartzen direnaren esanahia bilatu du. Hau da naziek arku horretatik sartzea ez zen kasualitatea izan zerbait adierazi nahi zuten (Frantziaren porrota edo Alemaniaren garaipena) eta gure C ikasleak mezu hori hartzeko gai izan da. Baina ikasle hau urrunago doa Rethondeseko armistizioa Hitlerren harrotasuna erakusten duela esaten duenean. Ikasle honek gertakizun historiko bati buruzko balorapen bat egiten du. Beraz ikasle hau iturrietatik ezkutuan dagoen informazioa ateratzeko gaitasun handia duela ondorioztatu dezakegularik. Hau guztiaren ondorioa da maila oso altuko testu historiko bat burutu izana (gure aburuz Batxilergokoa baino maila askoz altuago bat).

9.4. D ikaslea

D ikasleak lehenengo galderetan besteekiko datu desberdinak eman dizkigu. Lehenengo galderan beste ikasle guztiek bezala bigarren hipotesia aukeratu du. Hala ere beste ikasleak ez bezala hirugarren galderan bere hipotesia mantentzen jarraitu du: "Naziek Frantzia ere baketsuan hartu dute, gerrarik gabe. Beraz, desfileak negoziazio baketsu horien testuinguruan ospatu dira". Ikusten denez ikasle honek ez du lehen mailako iturrietatik informazio egokia ateratzeko gaitasunik erakutsi edo ez dizkiogu eman berarentzat beharrezkoa zen informazioa.

Hirugarren galderan, iturriak erlazionatzerako orduan honakoa idatzi du: "*lehenengoa baketsua zen eta bigarrenean berriz gerran zeuden".* Hemen aipaturiko informazioa ateratzeko zailtasunak ageri dira. Bestetik ez ditu bi bideoen lotura bat egin, haietan agertzen zena soilik deskribatuz.

Bosgarren galderan honakoa esaten du: "alemaniarrek Frantzia lortu nahi zuten. Belgika inbaditu zuten baina frantziarrentzat tranpa bat zen eta Holandatik sartu ziren. Blitzkrieg estrategia egin zuten Frantzia inbaditzeko eta Rethondeseko armistizioa egin zuten Hitler eta frantziarrak eta sinatu zuten Frantzia errenditu zela."

Honi buruz esan dezakegun lehen gauza da kontzeptu sinpleenak era egokian ulertu dituela; alemaniarrek Frantzia konkistatu zutela alegia. Alemaniarrek frantziarrei tranpa moduko bat egin zietela ere ulertzen du. Hala ere kontzeptu geografikoetan emandako ekintzak ez ditu era egokian barneratu, ez ditu Ardenak aipatzen nahiz eta esan dugun bezala naziek Holanda eta Belgikatik sartu zirela ulertzen duen. Bestetik Blitzkrieg-a estrategia bat dela ulertu du eta Rethondesen bakearen ordez era egokian aipatu du bertan Frantziaren errendizioa eman zela.

Ondorioz ikasle honek desoreka handiak erakutsi dizkigu. Hau da Blitzkrieg eta armistizio bezalako hitzen esanahia ulertu duela ematen du baina kontzeptu asko nahasi ditu eta testuan, nahiz eta oinarrizko informazioa sartu duen askoz hobeto egin zezakeela uste dugu.

9.5. E ikaslea

Lehenengo hiru galderak A, B eta C ikasleak bezala erantzun ditu. Beraz, honi buruz ezer gutxi gehiago esan dezakegu.

Laugarren galdera honakoa esaten du: "dena konkistatzen dutela eta Frantziara iristen direla eta ere konkistatzen dute. Eta aste batean edo horrela Frantzia guztia konkistatu zuten".

Nahiz eta diskurtso honek puntu ilun asko izan (nortzuk konkistatzen dute…) gauza oso interesgarri bat esaten du. Ikasle honek aste batean Frantzia konkistatu zutela esaten du eta irakasleak ez diogu horri buruzko daturik eman. Dakigunez Frantziako inbasioa ekainaren 5ean hasi zen eta ekainaren 22an Rethondes-eko armistizioa sinatu zen. Osotara 17 egun iraun zuen inbasioak, gure ikasleak ematen dizkigun datuetatik

oso gertu dago. Hain ezagutza maila altuaren arrazoiak ziur bilatzea ezinezkoa zaigu. Agian telebistan, bideojokoren batean, liburu batean… lortuko zituen ezagutza hauek.

Bestetik azkeneko galderan honakoa idatzi zigun: "naziek dena konkistatzen ari ziren eta Frantziara heldu ziren. Ezin zirenez pasa Maginot Lerro bat zuelako eta oso zaila zen pasatzea orduan Belgika eta Holandatik pasa ziren eta frantziar soldadu asko akorralatu eta hil zituzten aste bat geroago Frantzia osoa hartu zuten. Lehenengo Mundu Gerran gertatutakoa hau da, alemaniarrak tren batean sartu zituzten, ba hor alrebes egin zuten eta frantsesak trenean sartu zuten. Gauza bat sinbolikoa izan zen."

Adierazten den bezala ikasle honek azaldu zaizkion kontzeptu gehienak ulertu ditu. Honela Frantziako inbasioa eta honen aurrekariak era argi eta laburrean azaltzen ditu. Hala ere ez du ulertu armistizioan egin zena, hau da, bere hitzetatik ulertu dezakeguna da alemaniarrak frantziarrak tren bagoi batean sartu zituztela eta hori sinbolikoa dela. Ez du ulertu (edo gutxienez ez du aipatzen) bagoi horretan eman zen armistizio sinboliko hura.

9.6. F ikaslea

Ikasle honek, besteak ez bezala, lehenengo galdera "Hitlerrek Frantziaren aurkako guda baten ondoren Paris konkistatzea lortu du" hipotesia aukeratu du. Gure aburuz hipotesi hau aukeratzeko oraindik informazio nahikoa ikasleei eman ez diegulako suposatu dezakegu ikasle honek gaiari buruzko bere kideak baino gehiago dakiela.

Bestetik ohartu garen bezala hirugarren galderan hipotesia mantentzen jarraitzen du, hau da, lehenengo bideotik ikusi duena bere aukeraketa indartzeko balio izan du.

Laugarren galdera erantzuterako orduan ikasle honek honakoa adierazi du: "Alemaniatik aterata Parisera ailegatu arte zeuden lurraldeak konkistatu zuten, Paris ere bai." Ezer gutxi esan dezakegu esaldi sinple honetatik. Ikusten da orain arte eskatzen zaiona ulertu duela nahiz eta oso era xumean esan.

Ikasle honen benetako ezagutzak bosgarren galderan aterako dira, honakoa esan bai du: "Alemaniak, Austria, Txekoslovakia eta Europako iparraldea konkistatu eta gero, Errumania eta Bulgaria aliatu ziren, eta Alemania Frantziara jo zuen. Baina Maginot Lerroa zegoen, hau da, aliatuen tropak. Naziek erabaki zuten Holandatik eta Belgikatik joanda beraien tropei erasotzea Blitzkrieg erabiltzen. Hau egin ondoren, Frantzia erdia konkistatu zuten Ardenak basotik pasatzen. Parisen desfile handi bat egin zuten boterea erakusteko eta gero Frantziarekin Rethondeseko armistizioa sinatu zuten."

Ikus daitekeen bezala ikasle honek Bigarren Mundu Gerrari buruz asko daki. Agerikoa da gaia ulertu duela. Hala ere erabat harriturik geratu gara Errumania eta Bulgaria naziekin aliatu zirela esan zuenean, guk nahiz eta datu horiek ezezagunak ez izan analisi honetan ziurtatu behar izan ditugu. Horrela ba hainbat autore kontsultatu behar izan ditugu hau egiaztatzeko. Hastings-ek (2011, 143) honakoa esaten du:

> "Ion Antonescu jenerala Errumaniako Lehen Ministro izendatu ondoren, 1940ko urriaren 12an,, herrialdea eta bere petrolio erreserba baliotsuak germaniar

domeinuaren menpe gelditu ziren. Haren herritar askok Alemania halabeharrezko aliatu bat bezala ikuste zuten Sobietar Erresumaren lurraldetasun gurarien arriskuaren aurrean[29]. Bulgariari buruz Artola (1998, 166) honakoa dio: Martxoaren 1ean Bulgaria Ardatzera elkartzen da eta alemaniar tropak herrialdean sartzen dira"[30].

Beraz ikasle honek Bigarren Mundu Gerrari buruzko ezagutza espezifiko ugari ditu. DBH 4. mailako ikasle bat datu hauek ematea deigarria iruditu zaigu.

10. ONDORIOAK

Ikusi daitekeenez aukeraturiko ikasleen maila oso heterogeneoa da, beraz orokortasunak egiterako orduan tentu handiz mugituko gara. Hala ere esan beharra daukagu praktika honek ez duela aukeraturiko ikasleen maila orokorra zehaztu nahi, hau da mailari buruz hitz egiterakoan kontuan izan behar dugu praktika edo proposamen didaktiko zehatz baten aurrean gaudela. Beraz ikasle batek praktika hau ez badu era egokian burutu ez du esan nahi praktika hobe burutu duten ikasleen maila baxuago bat duela. Praktika hau momentu eta egoera zehatz batean soilik ulertu behar dela esan dugu. Beraz datu hauetatik ateratzen ditugun ondorioak erabat mugaturik agertzen zaizkigu beste alor batzuetan aplikatzerako orduan kontuan hartu behar dira gauza hauek.

Hasteko esan beharra daukagu nahiz eta ikasleek praktika honetan maila ezberdinak erakutsi dituzten denek planteatzen genituen jakintza minimoak lortu dituzte. Hau da, iturriak ikusi ondoren hauetatik informazioa ateratzeko gai izan dira eta hau testu batean islatu dute. Honek guztiak esan nahi du metodo historikoa era egokian aplikatuz eta lehen mailako iturrietatik informazio egokia ateraz arazo historiko bati erantzuna bilatu daitekeela. Geuk erabilitako ikasleen gehiengo handi batek lehen mailako iturriak erabiliz erantzun egokia bilatu duelako. Proposatu diegun galderaren aurrean erantzun egokia bilatu dutela hain zuzen ere. Hala ere aipatu beharra daukagu lehen fase honetatik atera ditugun datuak ez zirela guk nahi bezain konplexuak.

Hala ere konplexutasuna sartu denean (guk burututako testua alegia) denek ez dute era berean ulertu. Hemen soilik maila altua duten ikasleek kontzeptuak areagotzeko gaitasuna erakutsi dute, beste mailako ikasleei aldiz, nahasmena sortzeko besterik ez du balio izan. Maila altuagoa zuten ikasleek kontzeptu oso konplexuak ulertzeko gai izateaz aparte, hauek testu batean islatzeko gai izan dira. Gainera hitz espezifiko askoren erabilera erakutsi dute, Beraz, ikasle hauek asko ikasi dutela ondorioztatu behar dugu.

Beste aldean hauekiko praktikan maila baxuagoa erakutsi duten ikasleak daude. Hauek kontzeptu konplexu batzuk ulertu dituzte, baita hainbat hitz espezifiko ere. Hala ere ez dira izan gai denak lotzeko nahiz eta geure aburuz DBH 4. maila batentzako maila handia erakutsi duten.

---

[29] "Tras la instalación del general Ion Antonescu en el puesto de primer ministro de Rumania, ocurrida el 12 de octubre de 1940, el país y sus vitales reservas de petróleo habían quedado bajo dominio germano. Muchos de sus ciudadanos tenían a Alemania por una aliada inevitable ante el riesgo que suponían las ambiciones territoriales de la Unión Soviética."

[30] "El 1 de Marzo Bulgaria se une al Eje y las tropas alemanas entran en el país."

Azkenik praktika honen aurrean zailtasun handiak izan dituzten ikasleak dauzkagu. Ondorio positiboen artean esan behar dugu hauetariko gehienek kontzeptu sinpleenak era egokian ulertzeko gai izan direla eta diseinuaren lehen atala oso ongi burutu dute. Hala ere kontzeptu sinpleetatik konplexuenetara igarotzeko bidea ez dute bete. Bidean geratu dira nahasmen askoren artean. Ondorioz esan dezakegu praktika ikasle hauentzat ulergarria izan dadin kontzeptuen espezializazio maila apur bat jaitsi behar dela. Noski geuk ulertzen dugu eskatu zaion maila oso altua dela DBH 4. maila batera, Frantziako bataila era askoz ere xumeago batean azaldu daitekeelako. Hala ere ohartu garenez lehen mailako iturriek informazio ugari ematen dute eta guk DBH 4. mailako ikaslee hauei iturri horietatik informazio gehiegi ateratzea bultzatu diegula ageri da.

Honela ba esan beharra daukagu ikasle bakoitzari ikerketa mota bat aplikatu behar zaiola. Noski guk ez genuen ezagutzen ikasle bakoitzaren maila eta horregatik denei proposamen didaktiko berdina eman diegu. Ikusi denez geuk proposaturiko diseinu didaktiko honek DBH 4. mailarako maila nahiko altuko edukiak lantzen zituen, honek mesede egin die maila altua erakutsi duten ikasleei.

Metodo eta iturri historikoei dagokienez Historiaren diziplinaren jakintza minimoak helarazi dizkiegu ikasle guztiei eta hauek erabiliz gehiengo handi batek ondorio zuzenetara iristeko gaitasuna erakutsi digu.

Honekin guztiarekin ikusi da lehen mailako iturrien erabilpena eta metodo historikoa ikasgelan aplikatzearen alde txarrak eta onak. Beste ondorio garrantzitsu bat ikasle bakoitzari metodo historikoa era egokian aplikatu dadin ikerketa pertsonalizatu bat proposatu behar zaiola, bere gaitasun mailen arabera beti ere.

GEHIGARRIAK

1.GEHIGARRIA: HASIERAKO GALDETEGIA

Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Prestakuntzako Masterra: Historia lehen mailako iturrien bitartez eraikitzea metodo historikoa erabiliz

HASIERAKO GALDETEGIA

Data: 2014/03/14

Izen-abizenak:.....

1-Historia ikasteko ze baliabide erabili dituzu orain arte ?

a) Testuliburua

b) Argazkiak

c) Diskurtso politikoak

d) Material audiobisualak

e) Pelikulak

f) Ahozko narrazioak

g) Historia liburu espezializatuak

2-Hiru aukera hauen artean aukeratu "Iturri Historiko" hitzari dagokion definizioa.

a) Arkeologiaren bitartez iraganari buruzko informazioa ematen duten material guztiak dira iturri historikoak.

b) Iraganari buruzko informazioa ematen duen, eta iragana eraikitzeko balio duen edozer (dokumentuak, testigantzak, objektuak…).

c) Iraganeko aztarna guztiak dira iturri historikoak.

3-Jakingo ahal zenuke esaten ze desberdintasun dagoen lehenengo mailako eta bigarren mailako iturri historikoen artean?

1

4-Jarraian dauden iturri historikoen artean jarri (1) lehenengo mailakoa baldin bada eta (2) bigarren mailakoa baldin bada.

a) Hitlerren diskurtso politiko baten bideoa ( )

b) Zure testuliburua ( )

c) XIII. mendeko gutun bat ( )

d) *Homo Sapiens* baten garezurra ( )

e) 1942ko alemaniar soldadu baten ahozko narrazioa ( )

f) 2012. urtean Mussoliniri buruz idatzitako liburu bat ( )

g) *Homo Sapiens* gizakiari buruz 1987. urtean idatzitako artikulu bat. ( )

5-Zer da zuretzat baliagarriagoa Historia ikasteko, iraganeko aztarnak (adibidez 1930ko hamarkadako bideo eta argazkiak) ala testuliburua?

a) Iraganeko aztarnak

b) Testuliburua

6-Adierazi hurrengo esaldiak zure ustetan egia (E) edo gezurra (G) diren ala ez.

a) Iraganeko aztarnak historia ikasteko testuliburua baino fidagarriagoak dira. ( )

b) Argazki batekin soilik oso datu historiko gutxi atera daitezke ( )

c) Iturri idatziak dira informazio gehien ematen duten iturriak. ( )

d) Iturri guztien egiazkotasuna aztertu behar da beti ( )

2. GEHIGARRIA: ITURRI HISTORIKOEN DEFINIZIOAREN DIAPOSITIBA



3. GEHIGARRIA: ITURRI HISTORIKOEN KLASIFIKAZIOAREN ESKEMAREN DIAPOSITIBA



4. GEHIGARRIA: JAKINTZA HISTORIKOA NOLA ERAIKITZEN DEN AZALTZEN DUEN DIAPOSITIBA



5. GEHIGARRIA: IKASLEI PROPOSAMENEAN ZER EGIN BEHAR DUTEN AZALTZEKO ERABILITAKO ESKEMAREN DIAPOSITIBA



6. GEHIGARRIA: BLITZKRIEG-A IKASLEEI AZALTZEKO ERABILITAKO DIAPOSITIBA



7. GEHIGARRIA: GURE PROPOSAMEN DIDAKTIKOA

Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Prestakuntzako Masterra: Historia lehen mailako iturrien bitartez eraikitzea metodo historikoa erabiliz

I. PRAKTIKA: ZER ARI DIRA NAZIAK PARISEN?

Izen-abizenak:.....

1-Argazkiak ikusi ondoren zertan zeuden, zure ustez, Hitler eta buruzagi nazi garrantzitsuenak Eiffel dorrearen aurrean?

a) Frantziako eskuin alderdiek nazismoaren ideologia Frantzian hedatu nahi dute. Horretarako Hitler Parisera gonbidatu dute hainbat ekitaldi politikoetan parte hartzeko.

b) Frantziarrek Nazien boterea ikusi ondoren Alemaniaren aurkako gerra saihestu nahi dute. Horretarako Hitler deitu dute konponbide baketsuak lortzeko.

c) Hitlerrek Frantziaren aurkako guda baten ondoren Paris konkistatzea lortu du.

d) Hitlerrek Alemanian beste Eiffel dorre bat eraiki nahi du eta horretarako originala ikustera joan da Parisera.

2-Jarraian aipaturiko ze ekintza agertzen dira bideoan?

a) Hitler Eiffel dorrearen aurrean.

b) Tropa alemaniarrak Garaipen Arkuan desfilatzen.

c) Alemaniar jeneral bat (lepoan Burdinazko Gurutzearekin) zaldi gainean alemaniar soldaduak agurtzen.

d) Soldadu alemaniarrei dominak ipintzeko ekitaldi bat.

e) Hildako soldadu alemaniarrei omenaldia.

f) Erich Raeder alemaniar itsas armadaren (Kriegsmarine) buruzagia eta Hermann Goering aire armadaren (Luftwaffe) buruzagia.

g) Alemaniar eta frantziarren arteko negoziaketak Rethondesen, I. Mundu Gerran erabili zen tren bagoi berean.

3-Bideoa eta argazkiak ikusi ondoren, zergatik antolatu dituzte naziek hainbat ekitaldi militar Frantzian?

a) Frantzia, guda baten ostean menperatu ondoren, naziek desfile bat antolatu dute Frantziaren aurkako garaipen militarra ospatzeko.

b) Naziek Frantzia era baketsuan hartu dute, gerrarik gabe. Beraz, desfileak negoziazio baketsu horien testuinguruan ospatu dira.

c) Tropak Hitlerrek Frantzian emango dituen hitzaldiak ikustera doaz.

1

4-Orain ikusiko duzun bideoa desfilea baino aste batzuk lehenagoko gertakizunak islatzen ditu. Ze erlazio ikusten duzu bi bideoen artean?

5-Emandako informazio guztiarekin idatzi testu bat 1940. urtean Mendebaldeko frontean gertatu ziren ekintza nagusiak aipatuz (erabili beharreko hitzak: Belgika, Holanda, *Blitzkrieg*-a, Rethondeseko armistizioa, Pariseko desfilea, Ardenak Basoa, Maginot Lerroa…).

8. GEHIGARRIA: A IKASLEAREN FITXA

Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Prestakuntzako Masterra: Historia lehen mailako iturrien bitartez eraikitzea metodo historikoa erabiliz

I. PRAKTIKA: ZER ARI DIRA NAZIAK PARISEN?

Izen-abizenak:..[redacted].....

1-Argazkiak ikusi ondoren zertan zeuden, zure ustez, Hitler eta buruzagi nazi garrantzitsuenak Eiffel dorrearen aurrean?

a) Frantziako eskuin alderdiek nazismoaren ideologia Frantzian hedatu nahi dute. Horretarako Hitler Parisera gonbidatu dute hainbat ekitaldi politikoetan parte hartzeko.

b) Frantziarrek Nazien boterea ikusi ondoren Alemaniaren aurkako gerra saihestu nahi dute. Horretarako Hitler deitu dute konponbide baketsuak lortzeko.

Hau → c) Hitlerrek Frantziaren aurkako guda baten ondoren Paris konkistatzea lortu du.

d) Hitlerrek Alemanian beste Eiffel dorre bat eraiki nahi du eta horretarako originala ikustera joan da Parisera.

2-Jarraian aipaturiko ze ekintza agertzen dira bideoan?

a) Hitler Eiffel dorrearen aurrean.

b) Tropa alemaniarrak Garaipen Arkuan desfilatzen.

c) Alemaniar jeneral bat (lepoan Burdinazko Gurutzearekin) zaldi gainean alemaniar soldaduak agurtzen.

d) Soldadu alemaniarrei dominak ipintzeko ekitaldi bat.

e) Hildako soldadu alemaniarrei omenaldia.

f) Erich Raeder alemaniar itsas armadaren (Kriegsmarine) buruzagia eta Hermann Goering aire armadaren (Luftwaffe) buruzagia.

g) Alemaniar eta frantziarren arteko negoziaketak Rethondesen, I. Mundu Gerran erabili zen tren bagoi berean.

3-Bideoa eta argazkiak ikusi ondoren, zergatik antolatu dituzte naziek hainbat ekitaldi militar Frantzian?

a) Frantzia, guda baten ostean menperatu ondoren, naziek desfile bat antolatu dute Frantziaren aurkako garaipen militarra ospatzeko.

b) Naziek Frantzia era baketsuan hartu dute, gerrarik gabe. Beraz, desfileak negoziazio baketsu horien testuinguruan ospatu dira.

c) Tropak Hitlerrek Frantzian emango dituen hitzaldiak ikustera doaz.

1

4-Orain ikusiko duzun bideoa desfilea baino aste batzuk lehenagoko gertakizunak islatzen ditu. Ze erlazio ikusten duzu bi bideoen artean?

Bukaerako bideoa Parisen [redacted] adierazten du eta hasieraboan horen omenaldia egiten da, gerraitik luten ikusiz eta ondoko jendea agertzen.

5-Emandako informazio guztiarekin idatzi testu bat 1940. urtean Mendebaldeko frontean gertatu ziren ekintza nagusiak aipatuz (erabili beharreko hitzak: Belgika, Holanda, *Blitzkrieg*-a, Rethondeseko armistizioa, Pariseko desfilea, Ardenak Basoa, Maginot Lerroa…).

Hasieran Alemania Holanda hartzen dute, bitartean Frantziarrak Belgika inbadituen ari dira. Alemaniarrek Belgikara joan nahi zuten, eta ez zeuden Frantzesak han zeudela. Ondoren Maginot Lerroan zeoden. Ez zuten nahi Ardenen Basotik pasa nahi zuelako-eta zeudelako, ondoren Blitzkrieg-a planeren lagungarriz pasatzen dute. Ondoren Rethondeseko armistizioa egiten dute eta azkenean Alemaniarrek Paris konkistatzen dutenez Pariseko desfilea egiten dute.

9. GEHIGARRIA: B IKASLEAREN FITXA

Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Prestakuntzako Masterra: Historia lehen mailako iturrien bitartez eraikitzea metodo historikoa erabiliz

I. PRAKTIKA: ZER ARI DIRA NAZIAK PARISEN?

Izen-abizenak:[redacted]

1-Argazkiak ikusi ondoren zertan zeuden, zure ustez, Hitler eta buruzagi nazi garrantzitsuenak Eiffel dorrearen aurrean?

a) Frantziako eskuin alderdiek nazismoaren ideologia Frantzian hedatu nahi dute. Horretarako Hitler Parisera gonbidatu dute hainbat ekitaldi politikoetan parte hartzeko.

b) Frantziarrek Nazien boterea ikusi ondoren Alemaniaren aurkako gerra saihestu nahi dute. Horretarako Hitler deitu dute konponbide baketsuak lortzeko.

c) Hitlerrek Frantziaren aurkako guda baten ondoren Paris konkistatzea lortu du.

d) Hitlerrek Alemanian beste Eiffel dorre bat eraiki nahi du eta horretarako originala ikustera joan da Parisera.

2-Jarraian aipaturiko ze ekintza agertzen dira bideoan?

a) Hitler Eiffel dorrearen aurrean.

b) Tropa alemaniarrak Garaipen Arkuan desfilatzen.

c) Alemaniar jeneral bat (lepoan Burdinazko Gurutzearekin) zaldi gainean alemaniar soldaduak agurtzen.

d) Soldadu alemaniarrei dominak ipintzeko ekitaldi bat.

e) Hildako soldadu alemaniarrei omenaldia.

f) Erich Raeder alemaniar itsas armadaren (Kriegsmarine) buruzagia eta Hermann Goering aire armadaren (Luftwaffe) buruzagia.

g) Alemaniar eta frantziarren arteko negoziaketak Rethondesen, I. Mundu Gerran erabili zen tren bagoi berean.

3-Bideoa eta argazkiak ikusi ondoren, zergatik antolatu dituzte naziek hainbat ekitaldi militar Frantzian?

a) Frantzia, guda baten ostean menperatu ondoren, naziek desfile bat antolatu dute Frantziaren aurkako garaipen militarra ospatzeko.

b) Naziek Frantzia era baketsuan hartu dute, gerrarik gabe. Beraz, desfileak negoziazio baketsu horien testuinguruan ospatu dira.

c) Tropak Hitlerrek Frantzian emango dituen hitzaldiak ikustera doaz.

1

4-Orain ikusiko duzun bideoa desfilea baino aste batzuk lehenagoko gertakizunak islatzen ditu. Ze erlazio ikusten duzu bi bideoen artean?

Ikusten dudan erlazioa hurrengoa da:

lehenengo alemaniar tropak Frantziara joan ziren, gudaren bidez Frantzia inbaditzera. Han gertatu ondoren, Frantzia bereganatu zuten eta horri ospatzeko desfile bat egin zuten, bertan hildakoei omen egitez eta beste batzuei deminak ematen.

5-Emandako informazio guztiarekin idatzi testu bat 1940. urtean Mendebaldeko frontean gertatu ziren ekintza nagusiak aipatuz (erabili beharreko hitzak: Belgika, Holanda, *Blitzkrieg*-a, Rethondeseko armistizioa, Pariseko desfilea, Ardenak Basoa, Maginot Lerroa…).

Naziek Austria, Txekoslovakia Polonia... eta beste asko inbaditu zituzten. Frantziara bazatu nahi zuten orren, Maginot lerroa zuten tartean, eta oso zaila da pasatzea. Hori dela-eta Holanda eta Belgika harten dituzte Frantziari erasotzeko, beraz lerroko tropa batzuk mugitzen dira, Arduan Ardenak Basoatik igarotez, mugitu ziren frantziar tropak poltsa bat bezala bertan sartu zituzten. Erraso horri Blitzkrig deitzen zaio. Hortik pasa ziren eta Pariseraino heldu ziren. Han Pariseko desfilea egin zuten haren omenez. Hitlerrek Igo Mundu Gerraren ondoren, Versalleko Itunean erabili zuten trena ekartzea eskatu zuen, eta bertan Frantziarrek Alemanek I. go M. G.-ren ondoren hartutako lekuak hartu zituzten eta Rethondeseko armistizioa gertatu zen. Egun gutxitan Alemanek Frantzia bereganatu zuten.

2

10. GEHIGARRIA: C IKASLEAREN FITXA

Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Prestakuntzako Masterra: Historia lehen mailako iturrien bitartez eraikitzea metodo historikoa erabiliz

I. PRAKTIKA: ZER ARI DIRA NAZIAK PARISEN?

Izen-abizenak:[redacted].....

1-Argazkiak ikusi ondoren zertan zeuden, zure ustez, Hitler eta buruzagi nazi garrantzitsuenak Eiffel dorrearen aurrean?

a) Frantziako eskuin alderdiek nazismoaren ideologia Frantzian hedatu nahi dute. Horretarako Hitler Parisera gonbidatu dute hainbat ekitaldi politikoetan parte hartzeko.

b) Frantziarrek Nazien boterea ikusi ondoren Alemaniaren aurkako gerra saihestu nahi dute. Horretarako Hitler deitu dute konponbide baketsuak lortzeko.

c) Hitlerrek Frantziaren aurkako guda baten ondoren Paris konkistatzea lortu du.

d) Hitlerrek Alemanian beste Eiffel dorre bat eraiki nahi du eta horretarako originala ikustera joan da Parisera.

2-Jarraian aipaturiko ze ekintza agertzen dira bideoan?

a) Hitler Eiffel dorrearen aurrean.

b) Tropa alemaniarrak Garaipen Arkuan desfilatzen.

c) Alemaniar jeneral bat (lepoan Burdinazko Gurutzearekin) zaldi gainean alemaniar soldaduak agurtzen.

d) Soldadu alemaniarrei dominak ipintzeko ekitaldi bat.

e) Hildako soldadu alemaniarrei omenaldia.

f) Erich Raeder alemaniar itsas armadaren (Kriegsmarine) buruzagia eta Hermann Goering aire armadaren (Luftwaffe) buruzagia.

g) Alemaniar eta frantziarren arteko negoziaketak Rethondesen, I. Mundu Gerran erabili zen tren bagoi berean.

3-Bideoa eta argazkiak ikusi ondoren, zergatik antolatu dituzte naziek hainbat ekitaldi militar Frantzian?

a) Frantzia, guda baten ostean menperatu ondoren, naziek desfile bat antolatu dute Frantziaren aurkako garaipen militarra ospatzeko.

b) Naziek Frantzia era baketsuan hartu dute, gerrarik gabe. Beraz, desfileak negoziazio baketsu horien testuinguruan ospatu dira.

c) Tropak Hitlerrek Frantzian emango dituen hitzaldiak ikustera doaz.

1

4-Orain ikusiko duzun bideoa desfilea baino aste batzuk lehenagoko gertakizunak islatzen ditu. Ze erlazio ikusten duzu bi bideoen artean?

Alemanek Frantziaren aurkako gerra irabazi dute eta ondorioz bigarren bideoan Frantzia konkistatu dutela ospatzen ari dira soldadu alemanak.

5-Emandako informazio guztiarekin idatzi testu bat 1940. urtean Mendebaldeko frontean gertatu ziren ekintza nagusiak aipatuz (erabili beharreko hitzak: Belgika, Holanda, *Blitzkrieg*-a, Rethondeseko armistizioa, Pariseko desfilea, Ardenak Basoa, Maginot Lerroa...).

Frantziarrek eta Ingelesek gerra galdu zuten hemendik Frantzia frogatu zuten. I.MG-ko bakea. Hitler garaileen lekuan jarri zen tren berean. Frantziaren errendizioa hemendik igaro ziren
defentsa posizioa → Frantzia / Alemania → alemaniarrak ezin ziren pase

Alemaniarrek Frantzia konkistatu nahi zuten. Frantzia eta Alemaniako mugan Maginot Lerroa izeneko eremu bat zegoen eta bertan Frantziarrek defentsa bloke bat zuten, beraz alemaniarrak ezin ziren bertatik sartu. Ondorioz, Holandatik sartzen hasi ziren eta bitartean frantsesak ere Belgika aldera mugitu zituzten tropak. Alemanek hau aprobetxatu zuten eta Ardenak Basoa-tik sartzea erabaki zuten. Frantsesek ez zuten espero alemanak hemendik sartuko zirenik oso eremu menditsua baitzen. Behin alemanak Frantzian sartu zirela Blitzkrieg metodoa erabili zuten Frantzia konkistatzeko. Hau oso eroginkorra izan zen eta aste baten buruan alemanek Frantzia erdia konkistatu zuten. Garaipena ospatzeko Parisen desfile bat egin zuten, tropek Garaipen Arkutik sartuz eta ondoren soldaduei domindu jarri zioketen eta hildako soldaduei omenaldia egin zieten. Azkenik Rethondeseko armistizioa sinatu zuten. 1. Mundu Guerran Frantzia eta Alemaniaren bakea sinatu zen bagoi berean, baina oraingoan Hitler garaileen lekuan zegoen. Ekintza hau nahiko sinbolikoa izan zen eta Hitlerren harrotasuna erakusten du.

11. GEHIGARRIA: D IKASLEAREN FITXA

Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Prestakuntzako Masterra: Historia lehen mailako iturrien bitartez eraikitzea metodo historikoa erabiliz

I. PRAKTIKA: ZER ARI DIRA NAZIAK PARISEN?

Izen-abizenak:[redacted].....

1-Argazkiak ikusi ondoren zertan zeuden, zure ustez, Hitler eta buruzagi nazi garrantzitsuenak Eiffel dorrearen aurrean?

a) Frantziako eskuin alderdiek nazismoaren ideologia Frantzian hedatu nahi dute. Horretarako Hitler Parisera gonbidatu dute hainbat ekitaldi politikoetan parte hartzeko.

b) Frantziarrek Nazien boterea ikusi ondoren Alemaniaren aurkako gerra saihestu nahi dute. Horretarako Hitler deitu dute konponbide baketsuak lortzeko.

c) Hitlerrek Frantziaren aurkako guda baten ondoren Paris konkistatzea lortu du.

d) Hitlerrek Alemanian beste Eiffel dorre bat eraiki nahi du eta horretarako originala ikustera joan da Parisera.

2-Jarraian aipaturiko ze ekintza agertzen dira bideoan?

a) Hitler Eiffel dorrearen aurrean.

b) Tropa alemaniarrak Garaipen Arkuan desfilatzen.

c) Alemaniar jeneral bat (lepoan Burdinazko Gurutzearekin) zaldi gainean alemaniar soldaduak agurtzen.

d) Soldadu alemaniarrei dominak ipintzeko ekitaldi bat.

e) Hildako soldadu alemaniarrei omenaldia.

f) Erich Raeder alemaniar itsas armadaren (Kriegsmarine) buruzagia eta Hermann Goering aire armadaren (Luftwaffe) buruzagia.

g) Alemaniar eta frantziarren arteko negoziaketak Rethondesen, I. Mundu Gerran erabili zen tren bagoi berean.

3-Bideoa eta argazkiak ikusi ondoren, zergatik antolatu dituzte naziek hainbat ekitaldi militar Frantzian?

a) Frantzia, guda baten ostean menperatu ondoren, naziek desfile bat antolatu dute Frantziaren aurkako garaipen militarra ospatzeko.

b) Naziek Frantzia era baketsuan hartu dute, gerrarik gabe. Beraz, desfileak negoziazio baketsu horien testuinguruan ospatu dira.

c) Tropak Hitlerrek Frantzian emango dituen hitzaldiak ikustera doaz.

1

4-Orain ikusiko duzun bideoa desfilea baino aste batzuk lehenagoko gertakizunak islatzen ditu. Ze erlazio ikusten duzu bi bideoen artean?

Lehenengoa baketsua zen eta bigarrenean berriz gerran zeuden.

5-Emandako informazio guztiarekin idatzi testu bat 1940. urtean Mendebaldeko frontean gertatu ziren ekintza nagusiak aipatuz (erabili beharreko hitzak: Belgika, Holanda, *Blitzkrieg*-a, Rethondeseko armistizioa, Pariseko desfilea, Ardenak Basoa, Maginot Lerroa…).

Alemaniarrek Frantzia lortu nahi zuten. Belgika inbaditu zuten baina frantziarrentzat trampa bat zen eta Holandatik sartu ziren. Blitzkrieg-eko estrategia egin zuten Frantzia inbaditzeko eta Rethondesko armistizioa egin zuten Hitler eta frantziarrak eta sinatu zuten Frantzia errenditu zela.

12. GEHIGARRIA: E IKASLEAREN FITXA

Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Prestakuntzako Masterra: Historia lehen mailako iturrien bitartez eraikitzea metodo historikoa erabiliz

I. PRAKTIKA: ZER ARI DIRA NAZIAK PARISEN?

Izen-abizenak:[redacted].....

1-Argazkiak ikusi ondoren zertan zeuden, zure ustez, Hitler eta buruzagi nazi garrantzitsuenak Eiffel dorrearen aurrean?

a) Frantziako eskuin alderdiek nazismoaren ideologia Frantzian hedatu nahi dute. Horretarako Hitler Parisera gonbidatu dute hainbat ekitaldi politikoetan parte hartzeko.

b) Frantziarrek Nazien boterea ikusi ondoren Alemaniaren aurkako gerra saihestu nahi dute. Horretarako Hitler deitu dute konponbide baketsuak lortzeko.

c) Hitlerrek Frantziaren aurkako guda baten ondoren Paris konkistatzea lortu du.

d) Hitlerrek Alemanian beste Eiffel dorre bat eraiki nahi du eta horretarako originala ikustera joan da Parisera.

2-Jarraian aipaturiko ze ekintza agertzen dira bideoan?

a) Hitler Eiffel dorrearen aurrean.

b) Tropa alemaniarrak Garaipen Arkuan desfilatzen.

c) Alemaniar jeneral bat (lepoan Burdinazko Gurutzearekin) zaldi gainean alemaniar soldaduak agurtzen.

d) Soldadu alemaniarrei dominak ipintzeko ekitaldi bat.

e) Hildako soldadu alemaniarrei omenaldia.

f) Erich Raeder alemaniar itsas armadaren (Kriegsmarine) buruzagia eta Hermann Goering aire armadaren (Luftwaffe) buruzagia.

g) Alemaniar eta frantziarren arteko negoziaketak Rethondesen, I. Mundu Gerran erabili zen tren bagoi berean.

3-Bideoa eta argazkiak ikusi ondoren, zergatik antolatu dituzte naziek hainbat ekitaldi militar Frantzian?

a) Frantzia, guda baten ostean menperatu ondoren, naziek desfile bat antolatu dute Frantziaren aurkako garaipen militarra ospatzeko.

b) Naziek Frantzia era baketsuan hartu dute, gerrarik gabe. Beraz, desfileak negoziazio baketsu horien testuinguruan ospatu dira.

c) Tropak Hitlerrek Frantzian emango dituen hitzaldiak ikustera doaz.

1

4-Orain ikusiko duzun bideoa desfilea baino aste batzuk lehenagoko gertakizunak islatzen ditu. Ze erlazio ikusten duzu bi bideoen artean?

Denak konkistatzen ostela eta frantziara iristen direla etaere konkistatzen dute. Eta aste batean esan dezake frantzia gustia konkistatu zuten.

5-Emandako informazio guztiarekin idatzi testu bat 1940. urtean Mendebaldeko frontean gertatu ziren ekintza nagusiak aipatuz (erabili beharreko hitzak: Belgika, Holanda, *Blitzkrieg*-a, Rethondeseko armistizioa, Pariseko desfilea, Ardenak Basoa, Maginot Lerroa…).

Nazioak denak konkistatzen ari ziren eta frantziara heldu ziren. Ezin ziren pasa Maginot lerro bat zeelako eta oso zaila izango zen pasatzea orduan Belgika eta Holandatik pasa ziren eta frontharsoldadu asko akorralatu eta hil zituzten aste bat garagako frantzia osoa hartu zuten. Lehenengo mundu gerran gertatutakoa hau da, alemaniarrak tren batean sartu zituzten, baina hor alrebes egon zuten eta frantzesak tranan sartu zuten. Gauza bat sinbolikki izan zen.

13. GEHIGARRIA: F IKASLEAREN FITXA

Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Prestakuntzako Masterra: Historia lehen mailako iturrien bitartez eraikitzea metodo historikoa erabiliz

I. PRAKTIKA: ZER ARI DIRA NAZIAK PARISEN?

Izen-abizenak:[redacted].....

1-Argazkiak ikusi ondoren zertan zeuden, zure ustez, Hitler eta buruzagi nazi garrantzitsuenak Eiffel dorrearen aurrean?

a) Frantziako eskuin alderdiek nazismoaren ideologia Frantzian hedatu nahi dute. Horretarako Hitler Parisera gonbidatu dute hainbat ekitaldi politikoetan parte hartzeko.

b) Frantziarrek Nazien boterea ikusi ondoren Alemaniaren aurkako gerra saihestu nahi dute. Horretarako Hitler deitu dute konponbide baketsuak lortzeko.

c) Hitlerrek Frantziaren aurkako guda baten ondoren Paris konkistatzea lortu du.

d) Hitlerrek Alemanian beste Eiffel dorre bat eraiki nahi du eta horretarako originala ikustera joan da Parisera.

2-Jarraian aipaturiko ze ekintza agertzen dira bideoan?

a) Hitler Eiffel dorrearen aurrean.

b) Tropa alemaniarrak Garaipen Arkuan desfilatzen.

c) Alemaniar jeneral bat (lepoan Burdinazko Gurutzearekin) zaldi gainean alemaniar soldaduak agurtzen.

d) Soldadu alemaniarrei dominak ipintzeko ekitaldi bat.

e) Hildako soldadu alemaniarrei omenaldia.

f) Erich Raeder alemaniar itsas armadaren (Kriegsmarine) buruzagia eta Hermann Goering aire armadaren (Luftwaffe) buruzagia.

g) Alemaniar eta frantziarren arteko negoziaketak Rethondesen, I. Mundu Gerran erabili zen tren bagoi berean.

3-Bideoa eta argazkiak ikusi ondoren, zergatik antolatu dituzte naziek hainbat ekitaldi militar Frantzian?

a) Frantzia, guda baten ostean menperatu ondoren, naziek desfile bat antolatu dute Frantziaren aurkako garaipen militarra ospatzeko.

b) Naziek Frantzia era baketsuan hartu dute, gerrarik gabe. Beraz, desfileak negoziazio baketsu horien testuinguruan ospatu dira.

c) Tropak Hitlerrek Frantzian emango dituen hitzaldiak ikustera doaz.

1

4-Orain ikusiko duzun bideoa desfilea baino aste batzuk lehenagoko gertakizunak islatzen ditu. Ze erlazio ikusten duzu bi bideoen artean?

Alemaniatik atera ta Paris era ailegatu ~~b~~ arte ~~dauden~~ zeuden lurraldeak konkistatu zuten, Paris ere bai.

5-Emandako informazio guztiarekin idatzi testu bat 1940. urtean Mendebaldeko frontean gertatu ziren ekintza nagusiak aipatuz (erabili beharreko hitzak: Belgika, Holanda, *Blitzkrieg*-a, Rethondeseko armistizioa, Pariseko desfilea, Ardenak Basoa, Maginot Lerroa…).

Alemaniak, Austria, Txekoslovakia eta europako parte bat konkistatu eta gero, Rumania eta bulgaria aliatu ziren, eta Alemania Frantziaren jo zuten. Baina ~~maginot~~ maginot lerroa zegoen, hau da, aliatuen tropak. Nazik erabaki zuten Holandatik eta Belgikatik joanda boraion tropei erasotzea Blitzkrieg erabiltzen. Hau egin ondoren, Frantzia erdia konkistatu zuten, Ardenak basotik ~~pasatzen~~ pasatzen. Parisen desfile handi bat egin zuten botaren erakusleko eta gero Frantziarekin Rethondeseko armistizioa sinatu zuten.

2

14. GEHIGARRIA: KLASEAN BURUTUTAKO EZTABAIDAREN LABURPEN TXIKIA

Esan bezala irudiak ikusi ondoren ikasleek zer sentitu zuten galdetu zitzaien lehen momentu batean. Hemen erantzun askoren aurrean aurkitu ginen: gehienek boterearen islapen argi bat ikusi zutelarik. Hau interesgarria dela uste dugu, hau bait da naziek desfileekin eman nahi zuten mezua. Mezu hori hirurogeita hamar urte geroago berdina izaten jarraitzea duela ikusi dezakegu.

Eztabaidaren bigarren atal batean ikasleei bidean agertzen diren pertsonen rolak hartzeko eskatu genien. Batzuek garaituen rola hartuko dute, Parisen zegoen neska ingelesa adibidez eta beste batzuek militarrenak (frantziarrak eta alemaniarrak).

Honen harira esan beharra daukagu neska ingeles horrek, militar alemaniarrek…ikusitako irudi berdinak ikusi dituztela gure ikasleak, horrek enpatia sortzeko erraztasunak ematen dituelarik.

Garaituen rola hartu zuten ikasleak sentimendu asko helarazi zizkiguten. Horietariko bat beldurra zen, hainbeste jende armatu eta arrotzen aurrean egoteak ematen zien beldurra alegia. Beste batzuek beldurraz aparte ziurgabetasuna sentituko zutela zen, hau da, ondoren zer gertatuko ote zen ez zutela jakingo. Beste batzuek aldiz inbasio horren aurrean erresistentzia burutuko zutela adierazi zuten. Beraz, Burrinek (2004) esaten dituen frantziar gizarteak alemaniarren inbasioaren aurrean hartu zituen bi jarrera aipatzen dira (beldurra eta erresistentzia), autore honek aipaturiko hirugarrena (kolaborazioa) ikasleen artean agertzen ez delarik.

Ondoren militarren rola zuten ikasleek hartu zuten hitza. Militar frantziarrak umiliaturik egongo zirela esaten dute, beste batzuek ezintasuna adierazi ziguten. Hau da alemaniarren aurrean ezer egin ez zitekeela, etsipena alegia. Militar alemaniarren rola zuten ikasleek, aldiz, oso harro sentitzen zirela esan ziguten, eta Lehen Mundu Gerraren errebantxa gauzatu zutela.

Honekin guztiarekin uste dugu ikasleek ekintza historiko batek jarrera desberdinak sortzen dituela ulertu zuten, baita ere ikuspuntu guztiak kontuan hartu behar direla ere.

BIBLIOGRAFIA

ALBERT, M., FUENTES, C. & GUTIERREZ, J.M. (2011). La realización de un tema de "investigación" escolar histórico o social. J. PRATS (koord.), *Geografía e Historia. Investigación, innovación y buenas prácticas*-en (151-167 orr.). Bartzelona: Graó.

ALDANA FERNANDEZ, S. (1974). *Didáctica de las ciencias humanas: historia.* Alcoy: Marfil.

ALTAMIRA, R. (1895). *La enseñanza de la Historia*. Madril: Akal.

ARTOLA, R. (1998). *La Segunda Guerra Mundial.* Madril: Alianza.

BERMUDEZ, N. (2008). El cine y el video: recursos didácticos para el estudio y enseñanza de la historia. *Teoría y didáctica de las Ciencias Sociales*, 13. (101-123 orr.)

BURLEIGH, M. (2010). *Combate moral. Una historia de la Segunda Guerra Mundial.* Madril: Santillana.

BURRIN, P. (2004). *Francia bajo la ocupación nazi. 1940-1944.* Bartzelona: Paidós.

CALAF MASACHS, R. (1994). *Didáctica de las ciencias sociales: didáctica de la historia.* Bartzelona: Oikos-Tau.

CORONAS TEJADA, L. (1971). *Didáctica de la historia.* Madril: Anaya.

FEBVRE, L. (1953). *Combates por la Historia.* Bartzelona: Ariel.

FELIU TORRUELLA, M. & HERNANDEZ CARDONA, F. J. (2011). *12 ideas clave. Enseñar y aprender historia.* Bartzelona: Graó.

GALINDO MORALES, R. (1997). *La enseñanza de la historia en educación secundaria.* Sevilla: Algaida.

GUIBERT NAVAZ, M. E. & MAJUELO GIL E. (1998). *Tratamiento didáctico de las fuentes históricas: las harineras en Navarra durante el primer tercio del siglo XX: un taller de investigación de historia local para la educación secundaria*. Granada: Grupo Editorial Universitario.

HASTINGS, M. (2011). *Se desataron todos los infiernos: historia de la Segunda Guerra Mundial*. Bartzelona: Crítica.

KURTZ, G. (1994). *La fotografía, recursos didácticos para la historia.* Andorra la Vella: Serigraf.

MARTINEZ RUIZ, R. & MAQUEDA ABREU, C. (1989). *La historia y las Ciencias Humanas. Didáctica y Técnicas de Estudio.* Madril: Istmo.

MICHEL, H. (1972). *La Segunda Guerra Mundial*. Bartzelona: Oikos-Tau.

MORADIELLOS, E. (2011a). La historia: una ciencia humana y social de naturaleza racional. J. PRATS (koord.), *Geografía e Historia. Complementos de formación disciplinar*-en (33-45 orr.). Bartzelona: Graó.

(2011b). Métodos y técnicas de construcción del conocimiento histórico. J. PRATS (koord.) *Geografía e Historia. Complementos de formación disciplinar*-en (47-62 orr.). Bartzelona: Graó.

PANTOJA, A. (2010). La fotografía como recurso para la didáctica de la Historia. *Tejuelo*, 9. (179-194 orr).

PRATS, J. & SANTACANA, J. (2011a). La historia oral y los documentos fotográficos y audiovisuales. J. PRATS (koord.), *Geografía e Historia. Investigación, innovación y buenas prácticas*-en (69-89 orr.). Bartzelona: Graó.

(2011b). Metodos para la enseñanza de la Historia. J. PRATS (koord.), *Didáctica de la Geografía y la Historia*-n (51-64 orr.). Bartzelona: Graó.

(2011c). Enseñar a pensar históricamente: la clase como simulación de la investigación histórica. J. PRATS (koord.), *Didáctica de la Geografía y la Historia*-n (67-85 orr.). Bartzelona: Graó.

PRIETO, J.A., GOMEZ, C. J. & MIRALLES, P. (2013). El uso de fuentes primarias en el aula y el desarrollo del pensamiento histórico y social. Una experiencia en Bachillerato. *Clío*, 39.

TRIBO, G. (2005). *Enseñar a pensar históricamente*. Bartzelona: Universitat de Barcelona.

Web orrialdeak

http://www.bundesarchiv.de 2014-06-18

https://www.youtube.com 2014-06-18